

DATORRENA IÑAKI SOTO > 03

Kolonbiako prozesua, beste agertoki baterako ispilu

2015eko martxoaren 14a | VIII. urtea • 408.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

ARTZE-ZUMETA SORMEN HEGALDIA

EDICIONES 3E ARGITALETXEAK JOXAN ARTZE
ETA JOSE LUIS ZUMETAREN «LAINO GUZTIEN
AZPITIK...» ETA «ETA SASI GUZTIEN
GAINETIK...» LIBURUAK BERRARGITARATU DITU
LEHEN EDIZIOTIK 42 URTERA. > 12





4

**Lan gogorretara behartutako
esklabo modernoak** 04

**Marokoko torturatzaile bat
sarituko dute Parisen** 08

**Berrogei urteko sormen
hegaldia** 12



8



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Kolonbiako prozesua, beste agertoki baterako ispilu
 10 **Ander Gortazar Balerdi:** Gure monoraila
 11 **Mikel Zubimendi:** Bai ala ez? Ba ez! Denak ala inor ez? Inor ez!
 17 **Ainara Azpiazu «Axi»**
 22 **Arantxa Urbe:** Inposizioari aurre egiteko moduak
 23 **Iker Barandiaran:** Eragileen motibazioa landu
 27 **Koldo Sagasti:** «Je suis SA»
 27 **Joxean Agirre:** Monsieur Benotman
 31 **Olatz Arbelaitz:** Munduko makinarik azkarrenak: txutxu-mutxuak



18

**Emakumeak esku pilotan
etorkizuna marrazten** 18

**E.lkarrizketa: Ray Fernandez,
kubatar trobadorea** 22

In fraganti: Fausto Grossi 28



22



28



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
 (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



{ datorrena } Iñaki Soto

Kolonbiako prozesua, beste agertoki baterako ispilu

Oraindik harritu egiten nau zenbait euskal iritzi emailek nazioarteko bitartekari eta adituei dieten herra. Adibidez, tertulietan, Brian Currin, Jonathan Powell edo Ram Manikkalingam izenak entzunez gero beren alderdirik ilunena ateratzen dute zenbaitek, edukazio ona ez ezik edukazio minimoa bera ere galtzeraino. Harrigarriro, bitartekariak kobratzen dutena eta ez dutena izaten da gure aditu edo orojakileen obsesioetako bat. Iritzi emaile hauek, ordea, ez dira beren boluntario lanagatik ezagunak, baizik eta beren profesionaltasunagatik, kobratzearen alderdiari begiratzen baldin badiogu behintzat.

Beraiek ez bezala, ordea, saia gaitezen kritika pertsonal errazetan ez erortzen. Nazioartean bakearen eta bitartekaritzaren “industria” bat egon badagoela argi dago, batak bat Hegoafrikako prozesuaren harira eta hark izan zuen eskema jarraituz indartu eta instituzionalizatu dena –alderdien arteko elkarriketak, su-etenak, egiaren batzordeak, justizia trantsizionala...-. Nolanahi ere, kasuan kasu beren lanaren eraginkortasuna ebaluatuz eta dituzten mugak aztertuz egin dakieke kritika, ez bestela.

Aste honetan Brian Currin Euskal Herrian egon da eta berari buruz honelako izugarrikeriak entzun ahal izan ditugu. Giza eskubideen aldeko abokatu bati buruz, *apartheid* sistemaren aurkako borrokalari bati buruz, bakearen aldeko langile bati buruz inolako euskarririk ez duten irainak entzun ditugu. Aldi berean, zenbait komunikabidetan Currinen hitzak nola bihurtzen ziren irakurri ahal izan dugu, Google beraren itzulpenek baino doitasun gutxiago eta maltzurkeria handiagoa erakutsiz. Kasu horietan kazetari eta komunikabideetako arduradun horien profesionaltasuna bai jar daitekeela zalantzan. Kontrako norabidean, Currini adierazpen interesgarriak entzun ahal izan dizkiogu benetako profesionalak egindako beste elkarriketa batzuetan. Hegoafrikarrak beti esaten ditu gauza interesgarriak, egia eta balio unibertsalak izaten ditu ahoan, gurean aplikatzea komeniko litzatekeen ideiak. Horren adibide izango dira bihar Mikel Zubimendik GARArentzat egindako elkarriketan jasotakoak. Gomendioa da.

GUREA EZ BEZALAKO MUNDU POSIBLEAK

Kolonbiako prozesuan aurretik Euskal Herritik igaro ziren ordezkari, aditu eta bitartekari gehienak ikusi ahal izan ditugu, bai Gobernuaren ordezkariekin biltzen bai FARCeke ordezkariekin hitz egiten ere. Adibidez, Aieteko Konferentziako buru izan zen Kofi Anann Habanan egon da bi ordezkarietza biltzen. Jonathan Powell, bere aldetik, Juan Manuel Santos eta bere kabineteko kideekin bildu zen prozesuan aurrera egiteko har daitezkeen neurriak aztertzeko. Hein handi batean, han orain bizi den egoerari hemen ireki zen agertoki posibleetako baten itxura hartzen zaio. Jakina, horretarako espainiar Gobernuak beste era batera jokatu behar zuen. Lehenik eta behin, adimen politiko handiagoarekin. Izan ere, kolonbiar agintariak bake prozesuan engaiatzearen arrazoi nagusiak geostrategikoak direla uste dut. Santosek, bere garaian Armadaren buru izan zenean belatz gisa joka-

Kolonbian orain bizi den egoerari hemen ireki zen agertoki posibleetako baten itxura hartzen zaio. Jakina, horretarako espainiar Gobernuak beste era batera jokatu behar zuen, adimen politikoarekin

tzen zuenak, bere herrialdearen garapenerako muga zen egoera bat gainditzeko aukera gisa ikusi du prozesua, eskualdeko indar nagusia eta AEBetako antena izan ahal izateko gatazka armatua baldintzapen handia zelako. Emaizta zein izango den ezin da jakin, baina erronkari eutsi dio, eta kanpoko laguntza handia izan du –tartean AEBetako Administrazioarena berarena, bake prozesuan ez ezik baita hauteskunde prozesuan ere–.

Egoera orokorra ikusita, bai espainiar eta frantses estatuak itxikeria bai euskal herritarren zein gure ordezkarien ezintasuna, bakegintzaren “industriaren” dauden tresnak ez direla uneotan guretzat oso erabilgarriak esango nuke. Kreatibitatez, modu originalean, bide propioa asmatu beharko dugu, euskal bidea. Horretarako, hasteko, gure burua aldatu beharko dugu, besteena aldatzea zailagoa baita. Horiek bai, horiek Currinen hitzak dira. •



Esklabotza hedatuen dagoen munduko herrialdea Mauritania da, herritarren %4 esklaboak baitira –155.000 pertsona inguru–. GAURB

ESKLABOTZA MODERNOA

Lotzen dituen katerik gabe baina lan gogorrek egitera behartuta daudenak

 **JENDARTEA** / Nagore Belastegi Martin

Esklabotza aspaldian debekatu zen eta badirudi lan baldintzak hobetzearen aldeko etengabeko protestak egiten diren gizarte honetan ez dela jada pareko gehiegikeriarik bizi. Errealitatea oso bestelakoa da: herrialde txiroetan badaude esklaboen modura lan egiten dutenak, bortxaz edota baldintza oso kaskarretan.

Ez dira jada burdinazko atez itxitako barrakoietan bizi eta kateek ez dizkiete oinak heltzen, baina egun ere milioika esklabo daude munduan. Lanean gehiegikeriak jasaten dituzte, mesede baten truke lan

gogorrek egin behar dituzte, salerosi egiten dituzte, sexu esklaboak dira... Horietako asko, gainera, haurrak dira.

Munduan 36 milioi esklabo inguru daude. Gehienak Afrika eta Asian bizi badira ere, Europan ere badaude, esklabotza gutxien hedatutako kontinentea

izanagatik. 566.200 emakume, gizon eta haur bizi dira esklabotza egoeran Europan –Bulgaria, Txekiar Errepublika, Hungaria eta Turkia dira esklabo moderno gehien dituzten herriak–.

Munduko beste txokoetan egoera askoz larriagoa da. Walk Free gobernuz kanpoko erakunde australiarrak esklabo gehien dauden herrialdeen zerrenda osatu du. Hala, lehen postuan India dago 13,9 milioi esklaborekin; gero datoz Txina (2,9 milioi), Pakistan (2,1 milioi), Nigeria (701.000), Etiopia (651.000), Errusia (516.000), Thailandia (473.000), Kongoko Errepublika Demokratikoa (462.000), Myanmar (384.000), eta Bangladesh (343.000). Biztanle kopuruaren eta esklabo kopuruaren arteko portzentajeak ere atera dituzte, eta, hori kontutan izanik, Mauritania da egoerarik larrienean, herritarren %4 esklaboak baitira –155.000 pertsona inguru–.

Mauritaniako herritar gehienak beltzak dira (%70 eta %80 artean), baina arraroa da beltzak botere karguetara heltzea. Arruntena arabiarrek boterean izatea eta *haratin* edo arabiartutako beltzak euren mende egotea da. Asko abeltzainak, nekazariak edo zerbitzariak dira, baina esklabo gisa egiten dute lan, eta, halabeharrez, seme-alabek ere bide beretik jo behar izaten dute, gurasoen iragana estigma bat delako beraientzat.

Urtarril hasieran esklabotza-aren kontra lanean ari den Biram uld Abeid uld Dah liderrari bi urteko kartzela zigorra ezarri zioten «ordena publikoaren aurka egiteagatik eta elkarte abolizionista bat zuzentzeagatik». Berarekin batera beste bi kide ere atxilotu zituzten nekazartza arloko esklabotza-aren kontra aritzeagatik. *Haratin*-ak lursailekin batera heredatzen dituzte lurjabeek eta horiek lantzen dituzte euren bizitza osoan zehar soldata txiki baten truke. Biram uld Abeid eta bere jarraitzaileek uste dute lurraren jabetza belaunaldiz belaunaldi landu duenari dagokiola. Horrelako aldarririk egiteagatik Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Saria eman zion 2013an, nahiz eta

Mauritanian behin baino gehiagotan izan den kartzelan aldarrikapen horiek bultzatzeagatik.

2012an Afrika iparraldean oso zabaldua dagoen *malekita* errituko liburuak erre zituen Abeid uld Dah ekintzaileak, bere ustez historikoki esklabotza justifikatzen duelako. Horregatik kartzelara bidali zuten lehen aldiz. Bere diskurtsoa, baina, gero eta jende gehiagorengana heltzen ari da. Arabiar “zurien” artean bigarren bozkatuena den Tawassol alderdi politiko islamistak, adibidez, esklabotzaren, arrazismoaren eta diskriminazioaren aurkako jarrera agertu berri du.


Duela hirurogei urte, independentziaren aurretik, Mauritania tribuz osatutako herria zen, eta esklabotza puri-purian zen. Frantses kolonizatzaileek esklaboak merkatuak debekatu zituzten, hau da, ageriko esklabotza debekatu zuten, baina, aldiz, ez zuten ezer egin horren atzean ezkututzen zen egoera bortitzari aurre egiteko.

KOLTANA, ODOLEZ BUSTITA

Modernitateak sortutako esklaboak ere baditugu, harrobietan koltana jasotzetik bizi direnak kasu. Kolunbita eta tantalita mineralek osatzen dute koltana, fusio puntu oso altua dauka eta oso elektrizitate eroale ona da. Gainera, mehe eta gogorra da, eta horregatik erabiltzen da egungo objektu asko egiteko: zirkuitu elektronikoentzako kondentsadoreak, laborategiko zein medikuntzako materialak, bideo kontsolak, kameren lenteak, sakelako telefonoak... Hori dela eta, berebiziko garrantzia duen materiala bilakatu da.

Koltana ordezkatzeko materialik ez dago. Izan ere, koltana aurretik erabiltzen ziren beste material batzuk ordezkatzeko erabiltzen dute. Esaterako, aluminiozko kondentsadoreak koltanezkoak bezain ondo dabilta, baina, aldiz, askoz handiagoak dira, eta, horregatik, ezinezkoa litzateke egungo kamera, tablet eta telefono meheak egitea koltanik gabe.

Koltana ez da material arrunta eta munduko herrialde zehatz batzuetan bakarrik aurki



Haurren esklabotzarekin bereziki kezkatuta agertu dira hainbat gobernu kanpoko erakunde. Herrialde askotan, esklabotzaren lehen biktimak dira haurrak.
GAUR8

Indian, Txinan, Pakistanen, Nigerian, Etiopian, Errusian, Thailandian, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Myanmarren eta Bangladeshen daude esklabo gehien

Mauritanian herritarren %4 esklaboak dira. Herritarren %70 eta %80 artean beltzak badira ere, estigmatizatuta daude eta arabiar «zuriek» kontrolatzen dute botere guztia

daiteke. Brasil, Kanada, Etiopia, Ruanda eta Txinan harrobiak daude, baina ekoizten den koltanaren %80 Kongoko Errepublika Demokratikotik dator. Herri-tarrek oso baldintza kaskarretan egiten dute lan bertan eta Armadaren edota errebeldeen menpe egoten dira. Global Witness gobernu kanpoko erakundeak txosten bat kaleratu zuen 2009an, eta, bertan, Asia eta Europako enpresek Armadak zuzendutako harrobietatik materiala eskuratzen zutela salatu zuen. Armadak eta errebeldeek lurraldea kontrolatzen dute, eta, horretaz baliatzen dira giza eskubideak urratzeko. Hala, adin guztietako herritarrek indarrez egin behar dute lan harrobietan; esklabo bihurtzen dira.

Esklbook euren bizitza eten-gabe jartzen dute arriskuan: inolako segurtasunik gabe egindako zuloetan sartzen dira, tuneletan lur-jauziak izaten dira, itota hiltzen dira oxigeno faltagatik... Esklabotza mota honekin amaitzeko bidea enpresa multinazionalen harrobietatik ateratzen den koltana ez erostea litzateke. Global Witness erakundeak koltana erabiltzen duten 200 enpresa aztertutako zituen eta konturatu zen gehienek Armadak edo errebeldeek kontrolatutako harrobietako materiala erosten zutela; beraz, Kongoko gatazka indartzen zuen euren jardunak. Egoera hori mantentzen den bitartean, Mendebaldeko gizarteak Kongoko genozidioaren konplize zuzena izango da.

LANTEGIETAKO BALDINTZA TXARRAK

Orain arte azaldutakoaren ostean ulertzekoa da esklabotzaren aurkako borroka pil-pilean jarraitzen duela. Otsail hasieran, hegokorear talde batek zuzenduriko Mexikoko Jalisco estatuko oihalgintza enpresa batetik 129 pertsona askatu zituzten. Langileen arabera, gehiegikeriak jasaten zituzten: bortizkeria fisikoa eta sexuala, mehatxuak, irainak, lanordu luzeak... Gainera, langileek ez zuten kontraturik eta batzuek 16 urte baino gutxiago zituzten. Ez da Mexikon halako egoerak salatzen dituz-


ten lehen aldia. 2009an talde batek ehunka gizon bahitu eta esklabo bezala bizitzera behartu zituen ustez zituzten adikzioak sendatzeko bitarteko bezala.

Mexikoko kasua ezagutu eta egun gutxira Indiatik iritsi zen albistea. Bertako jostunek, jasaten duten egoerarekin nekatuta, protesta kanpaina bat hasi zuten. Soilik emakumez osatutako Garment Labour Union sindikatua sortu zuten lehenik euren lan baldintzen alde borrokatzeko. «Patroiek dirutza irabazten dute eta guri ez digute inolako baliorik ematen. Hori mingarria da», adierazi zuen emakume talde bateko bozeramaileak duela hilabete batzuk Goldenseam lantegian egindako protestan. Lurrean eseri eta lan baldintzak hobetu arte lanik egingo ez zutela esan zuten 162 langilek.

Emakume hauek astean 60 ordu lana egitera behartuta daude, eta, beharrezkoa izanez gero, ordu estrak ere egiten dituzte, nahiz eta jakin ez dituztela kobratuko. Jostunen gelek ez dute ez argirik ezta benteilaziorik ere. Beroarekin erabiltzen dituzten produktu kimikoak lurrundu egiten dira eta horiek arnastean gaixotasunak sor daitezke.

Indian emakumeak otzanak izateko hezten dituzte eta horretaz baliatzen dira enpresariak. Gutxi dira jasaten dituzten gehiegikeriak salatzeraz ausartzen direnak. Kexatzen diren emakumeek irainak jasotzeko arriskua dute eta nagusiek soldadak jaisten dizkiete. Baina egoera aldatzen ari da eta gero eta gehiago dira gizonei aurre egiten dieten emakumeak.

Indian, emakumeekin batera, haurrak ere egoera oso zaurgarrian bizi dira. Urtarrilean poliziak Hyderabad hiriko tailerretan lanean zeuden ehunka haur askatu zituen, horietako batzuk 6 urtetik beherakoak. Gaizki elikatuta eta traumatizatuta zeuden. Azaleko gaixotasun ugari zituzten, gelak zikinak eta ilunak zirelako. Egunean 16 ordu egiten zituzten lan atsedenik hartu gabe, kamerekin zelatatzen zituzten, eta, lanorduak bete ezean, bazkaldu gabe uztearekin mehatxatzen zituzten.



Azken datuen arabera, lau milioi haur inguruk jatetxe eta lantegietako behargin bezala egiten dute lan Indian. Horiek, baina, zifra ofizialak besterik ez dira: benetako datuak are izugarriagoak dira oraindik.

HAURRAK, KALTETUENAK

Save the Children gobernuz kanpoko erakundeak txosten bat kaleratu zuen 2014an haurrek munduan zehar jasaten dituzten esklabotza egoeren inguruan. Bertan esklabotza mota

Gailu teknologikoak egiteko beharrezkoa den koltana ugaria den herrialdeetan esklabotza modu berriak jarri dira martxan azken urteotan. Esklabo modernoak direla esan ohi da.
GAUR8

Mendebaldean ohikoak diren objektu moderno asko egiteko erabiltzen da koltana. Kongoko Errepublikan Demokratikoan, baina, baldintza izugarrietan aritzen dira koltana eskuratzeko

Indiako oihal lantegietako emakumeak antolatzen hasi dira pixkanaka euren lan baldintzak hobetu ahal izateko. Askok, hala ere, ez dira oraindik ere kexatzera ausartzen

desberdinak aztertzen dira, adibide zehatzak jarritz eta datu mingarriak azaleratuz. Txostenaren helburua errealitate horri ikusgarritasuna ematea da, gizarteak behingoagatik ken dezan itsutzen duen benda.

Haurren salerosketa da Save the Children berak aipatzen duen lehen esklabotza bidea. Urtero 1,2 milioi ume saltzen dira munduan, eta, gainera, datu hori gora egiten ari da pixkanaka. Pobreziak, globalizazioak eta eskulan merkearen eskariak haur langile gehiago egotea eragin du. Mafiek haurrak bahitu egiten dituzte normalean, baina, kasu batzuetan, euren zaintzaz arduratzen diren helduak konbentzitu egiten dituzte haurrei etxetik alde egiten uzteko bizitza hobeago baten bila joateko aitzakian. Gurasoek ere seme-alabak patroien esku uzten dituzte sarri, uste dutelako etorkizun hobeago izango dutela, baina, azkenean, salerosketaren biktima bilakatzen dira.

Saldutako haurrak etxeko esklabo edota lanbide arriskutsuetako behargin bilaka daitezke. Kanean dirua eskatzeko edo lapurretak egiteko ere baliatzen dituzte, Save the Children gobernuz kanpoko erakundearen arabera. Hezurrak hautsi arteko kolpeak jasaten dituzte eta gaixotasunak harrapatzeko arrisku handiagoa ere badute. Gainera, hezkuntza eta maitasuna jasotzeko eskubidea urratzen zaie.

Sexu esplotaziorako ere saltzen dituzte haurrak, edota pederastek alokatu egiten dituzte. Datua izugarria da: munduan 1,8 milioi haur esplotatzen dituzte sexualki dirua eskuratzeko. Haurrak jomuga dituen sexu turismoa ere garatu da, pederastek badakite eta zein herrialdeetara jo behar duten diruaren truke haurrekin sexu harremanak izateko.

Amaierarik gabeko pobrezia egoerak erabat babesgabe uzten ditu adingabeak sexu esplotazioaren aurrean. Batzuentzat di-

Familia txiro askok eskatutako maileguen zorrak kitatzeko lan astunak egin beharra izaten dute. Sarri, patroiek esan arte lan egitera behartutakoen artean umeak ere izaten dira

Legez kanpokoa da 15 urtez azpiko haurrak soldadu gisa erreklutatzea. Hala ere, asko dira gerretan parte hartzen dutenak. Batzuk bahitu egiten dituzte, beste batzuk boluntarioak dira

rua lortzeko bide bakarra da eta bizirauteko beste aukerarik ez dute ikusten. Heldu baten kontrolpean egonez gero, ez dute dirurik jasotzen, janaria eta lo egiteko lekua soilik. Bestalde, bortxazko sexu abusuak ere aztertu dira. Adibidez, Indian eta Ghanan neskatzak *devadasi* eta *trokosi* erritueta-ko apaizei eskaintzen dizkiete. Indian, gainera, prostituzioan lan egiten dutenen %30 adingabeak dira.

ZORRAK KITATZEKO LANA EGIN

Haur bat patroiarekin zorretan dagoenean nahitaezko menpekotasun egoera sortzen da, alegia, zor dutena ordaindu arte doan lana egin behar dute. Indian, esaterako, 15 milioi haur daude beste pertsona batek eragindako zorra ordaintzeko lanean. Adibidez, gurasoek mailegu bat eskatu dute etxea, botikak edo janaria ordaintzeko, eta, orduz geroztik, familia osoak egin behar du lan zorra kitatu arte. Kasu horietan, gainera, arazo gehigarri bat izaten da: familiak hain dira pobreak hezkuntzarik ere ez dutela, eta, horregatik, zehatz-mehatz zenbat diru zor duten zehazten ere ez dakite, ezta zenbat denbora egin beharko duten lan ere zorra kitatzeko.

Save the Children gobernuz kanpoko erakundearen txostenean Roshniren istorioa jasotzen da. Medikua izan nahi zuen umetan, baina ehundegi batean lan egin beharra izan zuen aurrera egiteko eta ez zuen hezkuntzarik jaso. Irabazten zuen gutxia familiako gastuak ordaintzeko erabiltzen zuen. Berak ikasterik izan ez zuenez, anaiaren ikasketak ordaintzeko aurrezten saiatzen ari da orain.

Haur bat koltan ustiategi batean lanean. Esklabotzari aurre egiteko modu eraginkorra litzateke koltana duten tresnak ez erostea eta horiei boikota egitea.
GAUR8

Nahitaezko lana arlo desberdinetan ematen da. Esaterako, meatzeetan ume asko daude lanean, nahiz eta oso arriskutsua izan lurpean aritzen direlako. Ordu asko ematen dituzte zuloetan sartuta, ke toxikoak arnasten eta karga pisutsuak garraiatzen. Drogak ere erabiltzen dituzte lan baldintza gogor horiek jasan ahal izateko. Nekazaritzan, berriz, 5 urtetik aurrerako umeek pestizidak, makina pisutsuak, aizkorak eta aiztoak erabiltzen dituzte. Gainera, nekazari-ek agintzen dizkieten lanak betetzen ez badituzte, zigortu egiten dituzte, are gogorrago ihes egiten saiatzen badira.

SOLDADU TXIKIAK

Legez kanpokoa da 15 urtetik behar-akoak soldadu gisa aritzea, baina hori ez da betetzen eta askotan ikusten ditugu umeak gerretan parte hartzen: Angolan, Afganistanen, Sierra Leonan, Sri Lankan... Egun, 300.000 haurrek nolabaiteko harremana dute munduan indar armatuekin. Helduek, gainera, umeak nahi dituzte, kontrolatzeko errazak direlako eta azkar ikasten dutelako. Etsaiak hiltzeko, minak jar-

tzeko, espioitza lanak egiteko edota gauzak leku batetik bestera eramateko erabiltzen dituzte.

Haur soldadu asko bahitu egiten dituzte, baina badaude boluntario aurkezten direnak ere mendeku hartu nahi dutelako edota euren herrialdearekiko leialtasuna adierazi nahi dutelako. Haurrok arazo ugari izaten dituzte armadatik ateratzean ere, fusil batekin bizitzera ohituta daudelako eta herritarrek beldurra izaten dietelako.

David Sudan hegoaldeko 16 urteko gaztea da. Berak kontatzen du nola txikia zenean inor ez zen eskolara joaten. Gerra hasi zenean euren herrixkak eraso bortitza jaso zuen, eta, berak, mendeku hartu nahian, 11 urte zituela boluntario gisa aurkeztu zuen bere burua soldadu izateko. Hiru borroketan hartu zuen parte, eta, beste haur batzuk hiltzen ikusi bazituen ere, ez zuen sekula beldurrik izan. Geroxeago eskolara joan nahi izan zuen eta beste lagun batzuekin batera ihes egin zuen. Hasieran gelakideek beldurra zioten eskolan, soldadua izan zelako. Esperientzia horrek erakutsi zion armak hartzea ez dela ona eta gaur

egun esaten du eskolak bizitza erabat aldatu diola.

MAITASUNIK GABEKO EZKONTZAK

Derrigortutako ezkontzak ere esklabotza mota bat dira. Txostenaren arabera, 100 milioi neska ezkonduko dira hurrengo hamarkadan 18 urte bete aurretik, gehienak derrigortuta. Bahitu eta bortxatu egiten dituzte, eta, ezkontzean, senarraren esklabo bilakatzen dira. Afganistanen mota horretako ezkontzak zorrak ordaintzeko erabiltzen dira. Ezkontzok direla-eta, 15 urtetik beherako 14 milioi neskatilek erditzen dute urtero munduan. Haurdunaldian zehar eta erditzean hiltzeko aukerak bost aldiz handiagoak dira 20 urteko emakumeekin konparatuz gero.

Emazteak etxeko lanak egitera behartzen dituzten bezala, badaude ezkondu gabe neska-me bezala lana egiten dutenak ere. Batzuek baldintza onak dituzte, baina gehienak esklabo bilakatzen dira. Gurasoek uste dute neskame moduan lana egiteak ezkontzen direnerako prestakuntza gisa balioko diela eta horregatik bidaltzen dituzte besteen etxeetara lanera.



GIZA ESKUBIDEAK

Estatu frantsesaren egun handian sarituko dute Parisko agintariek Marokoko torturatzailen burua

Frantses eta marokoar estatuak berradiskidetze prozesuan urratsak egiten ari dira, urtebeteko harreman etendurari amaiera eman nahian. Prozesuaren puntu gorena uztailaren 14an iritsiko da, Estatu frantseko festa nazionalaren egunean, Abdellatif Hammouchi Marokoko DGST Direction Generale de la Surveillance du Territoire (“Lurraldea Zaintzeko Zuzendaritza Nagusia” izeneko zerbitzu sekretuak) erakundeko buruari Ohorezko Legioaren Ofizialaren Domina ematen diotenean (dagoeneko jaso du Zaldunaren Domina, bestea baino apalagoa).

Parisek torturatzaille bat sarituko du Marokorekin dituen harremanei eusteko, bere ustezko printzipio horietako batzuk, teorian inoiz ukitu ezin diren horiek, hankaz gora botata. Baina eskandalu horrek ez du gaia agortzen. Iazko otsailetik hona bi estatuen arteko harremanetan izan diren gorabeherak aztertzea oso baliagarria izan daiteke Parisko zein Rabateko agintarien benetako izaera hobeto ulertzeko. Horretan saiatu gara orrialdeotan.

«GERRA HOTZA» HASI ZEN EGUNA

Bi estatuen arteko “gerra hotza” Marokon bertan hasi zen, marokoar jatorriko bi frantses DGST erakundeak torturatu zituenean. Gauza bera egin zuen emakume frantses batekin ezkontutako saharar batekin. Zerbitzu sekretuek beti egin izan dutena besterik ez zieten egin aipatu pertsona horiei: nahi adina egurtu eta torturatu, inolako frogarik gabe kartzelatu aurretik. Baina kasu horietan torturatuak salaketa aurkeztu zuten frantses Estatuan, eta, Europako herrialdean, gainera, salaketok epaile zintzo baten mahaira iritsi ziren. Hor hasi ziren ez Parisek ez Rabatek nahi ez zituzten azaroak.

Abdellatif Hammouchi Marokok Parisen duen enbaxadan ze-

goela, 2014ko otsailaren 20an, epaileak bidalitako zazpi agente bertaratu ziren, zerbitzu sekretuen buruari galdeketa egin behar zitzaiola esanez. Epailearengana eraman nahi zuten, baina marokoarrak ezezkoari eutsi zion eta azkenean ihes egin zuen, espainiar Estatuko mugatik barrena, aireportu frantsesetatik ez pasatzeagatik. Hammouchi bederatzi hilabete geroago itzuliko zen Estatu espainolera, Barne Ministerioak emandako sari bat jasotzera, baina Estatu frantsesera ezertarako azaldu gabe.

Epaileak torturatzailen «konplize» izatea leporatzen zion DGST erakundeko buruari. Hori gehiegi zen Rabateko agintarientzat. Kontuan hartu behar da Marokoko erregimenak oso ondo tratatu izan dituela beti frantses agintariak; «alfonbra gorria jartzen zitzaien», diote Afrikako herrialdeko diplomazialariek. «Beraientzat zoritxarreko gorabehera bat besterik ez zena, Marokon irain moduan bizi genuen», erantsi dute.

Zoritxarreko gorabehera krisi diplomatiko bihurtu zen sei egun geroago, otsailaren 26an. Justiziaren arloan ordura arte bi herrialdeek indarrean zuten elkarlan akordioa bertan behera uztea erabaki zuen Rabatek. Aipatu akordioa 1981ean jarri zen martxan eta milioika lagunengatik bizitzan zuen eragina. Kontuan hartu frantses Estatuan milioi eta erdi marokoar inguru bizi direla, eta 100.000 frantses baino gehiago Marokon.

Mohamed VI.aren erregimenak aukera guztiak baliatu zituen Parisi bere haserrearekin adierazteko. Egoera, gainera, are gehiago gaiztotuko zen handik aste batzuetara, Parisko Roissy-Charles-de-Gaulle aireportuan Salahedine Mezouar Marokoko Atzerri ministroari «miaketa iraingarria» egin ziotenean.

“Gerra hotza” larriagotzen ari zen eta terrorismo jihadistaren aurkako borroka ahultzen, Marokoren esku hartzea oso ga-

 **POLITIKA /** joseangel.oria@gaur8.info

A. Lamtasi, M. Naim eta N. Asfari torturatu egin zituzten Marokon eta gertatu zitzaiena frantses Estatuan salatu zuten. Epaile batek Marokoko zerbitzu sekretuen burua deklaratzera deitu zuen. Orain Parisek saritu egingo du torturatzaillea, bi estatuen artean etendako harremanak berreskuratu nahian.

rrantzitsua baita jihadismoari aurre egiteko garaian. Aldi berean, Europako hegialdeko mugaren zaintzan ere ezinbestekoa da marokoarren laguntza, Europar Batasuneko egungo agintarien arabera.

EPAILEEN INDEPENDENTZIA

Ez da harritzekoa François Hollande presidenteak “gerra hotzari” amaiera eman nahi izana. Hedabideek eskainitako datuen arabera, behin baino gehiagotan deitu zion Marokoko erregeari berari Hammouchiren inguruko egoeran ezer egiterik ez zeukala konbentzitu nahian, frantses Estatuan botere judiziala independentea dela errepikatuz... Alfer-alferrik, ordea.

Montesquieuren botere bereizketaren teoria klasikoaren arabera, botere legegilea, betearazlea eta judiziala bereizteak hiritarren askatasuna ziurtatzen du. Norbanakoaren askatasuna eta herritarrek agintariak hauteskunderen bidez aukeratu ahal izatea dira demokraziaren ezauzgarri nagusiak, eta, Maroko teorian demokrazia bat bada ere, erregeak badaki bera gauza horien ginetik dagoela, herritarrek edonor aukeratuta ere, berak jarraituko duela Marokoko benetako agintean, eta berari aurre egitea baino gauza okerragorik ez dagoela bere erreinuan.

Erregea nahi duena egiten ohituta dago Marokon, eta, ume kapritxosoen bezala, gustatzen ez zaion zerbait egiten dioten bakoitzean neurririk gabeko erreakzioak izaten ditu. Kasu honetan, bere errege posizioa bera hankaz gora botatzeko gaitasuna duen goi agintari bat zegoen arriskuan, eta, ondorioei gehiegi erreparatu gabe, erabaki zuen justiziaren arloko bi herrien arteko elkarlana bertan behera uztea.

Probokazioak, gaizki ulertzeak... eta herritarrek jasan beharreko kalteak (dibortzioak, ezkontzak, herentziak... ezin bideratu). Testuinguru horretan

Orrialde honetan,
Laurent Fabius Atzerri ministro frantsesa (ezkerrean) Abdelilah Benkirane Marokoko lehen ministroarekin, Rabaten joan den astelehenean. Hurrengo orrialdean, Abdellatif Hammouchi.
Fadai SENNA | AFP - GAUR8



joan zen Manuel Valls lehen ministro frantsesa Parlamentura, bi estatuen arteko laguntasuna apartekoa dela nabarmentzeko. Baina hori ere ez zen nahikoa izan erregearentzat. Pariseko astekari satiriko baten aurkako atentatuaren ondorengo nazio-arteko agintarien manifestaziora (aurtengo urtarrilaren 11n) ez zuen inor bidali Rabatek, kontinente guztietako 50 herrialde baino gehiagoko agintariak bertaratu baziren ere. Gauzak gaizki zeudela adierazten zuen beste seinale kezagarri bat.

Azkenean gauzak bere onera etorri dira ordea. Begirale batzuek diote jihadistak Afrikako zenbait puntutan indartu izanak eragin duela jarrera aldaketa. Beste batzuek nabarmentzen dute Parisek Rabatek exijitutako

Zerbitzu sekretuek beti egin izan dutena besterik ez zieten egin salaketa jarri zuten hiru lagunei: nahi adina egurtu eta torturatu, inolako frogarik gabe kartzelatu aurretik

2014ko otsailaren 26an, justiziaren arloan ordura arte bi herrialdeen artean indarrean zen elkarlan akordioa (1981ean abian jarritakoa) bertan behera uztea erabaki zuen Rabatek



berme guztiak emateko konpromisoa hartu duela, nahiz eta sinatu diren dokumentuetan horrelakorik ageri ez den.

BIKTIMAK BELDURTU

Badirudi marokoar agintariek ez dutela frantses justizia administrazioaren ekimenen beldurrik izan behar, edozein krimen eginda ere. Tankerako zerbait lortzen dute AEBek beren tropak hedatuta dauden herrialdeetan.

Hammouchi salatu zuen ACAT Tortura Ezabatzeako Kristauen Elkartea ere Rabaten jomugan dago. Talde horrek jakinarazi zion epaileari iazko otsailean DGSTko burua Parisen zela, "gera hotzari" hasiera emateko. Hiru pertsonen tortura salaketak aztertu ondoren, ACATek bat egin zuen torturatuekin. Aurten, urtarrilaren 23an, François Picart elkarteako presidenteari Rabateko epaileengana joateko exijitzen zion zitzazio bat iritsi zitzaion. «Gu auzitegira deituta, Marokok torturen biktima guztiak beldurtu nahi ditu», adierazi du Helene Legeay eledunak. «Frantziaren lanean aritzen den elkarte bat egurtuta, honako mezua helarazi nahi diete biktimei: gauza bera gertatuko zaizue protesta egitera ausartzen bazarete».



Zakaria Moumni, Parisen. GAUR8

AUZITEGI FRANTSSES BAT, TORTURAK SALATU ZITUEN BOXEOLARIAREN AURKA

MAP Marokoko berri agentzia ofizialak jakinarazi duenez, frantses Estatuko auzitegi batek Zakaria Moumni boxeolariari Rabateko Gobernua difamatu izana leporatu dio eta hilaren 20an joan beharko du deklaratzera. Moumni hainbat telebista katetan agertu izan da azken bolada honetan, bere kasua esplikatzen, hau da, 2010ean Marokon nola torturatu zuten azaltzen. Agintariek gertatzen ari zenaren berri bazutela dio 1999an kickboxingeko munduko txapelduna izan zen kirolariak. «Ahoz edo idatziz, pertsona baten fama eta ospea zalantzatan jartzea» da difamazioa, hiztegiaren arabera.

Kickboxingean nazioartean lortutako sariak direla-eta, Marokon bertan nolabaiteko aitortza jasotzea nahi zuen Moumnik, maila bereko beste kirolariek gertatzen den moduan (lanpostua edo bestelako abantailaren bat ere eman izan zaie). 2009an egin zuen eskaria lehen aldiz. Baina onura lortu beharrean, kaltea iritsi zitzaion: 2010eko irailean Rabateko aireportura iritsi zenean atxilotu egin zuten, iruzurra egin izana egotzita. Lau egunez torturatu zuten Temarako zentroan. Gero, erabat faltsututako epaiketa batean, kartzela zigorra ezarri zioten. 18 hilabete espetxean egin eta gero, erregeak indultatu egin zuen 2012an. Txapeldunak bi gauza zituen buruan aske geratzean: bere bizitza berreskuratzea, alde batetik, eta torturatzaileak zigortzea, bestetik.

Wikipedia entziklopedian Moumniri buruzko bi artikulua argitaratu dira, ingelesez eta frantsesez. Frantsesezkoak boxeolariak jasandako torturen berri zehatza ematen du. Ingelesekoak, berriz, gogora ekartzen du nazioarteko makina bat elkartek eta AEBetako Estatu Departamentuak berak ere sinesgarritasuna aitortu izan dietela Marokoren aurkako tortura salaketei. Testu horrek gogorarazten du ere CIAkoen «terrorismoaren aurkako borrokan» atxilotutako pertsonak Marokora eraman izan dituztela, bertan tortura ditzaten.



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Gure monorraila

Monorraíl -¿Qué he dicho? -¿Cómo se llama? -Monorraíl. -Eso es, ¡monorraíl!». Momentu eta atal gogoangarri ugari utzi dizkigu “The Simpsons” telesail amerikarrak, baina, bat aukeratu beharko banu, argi dut: “Marge monorrailaren kontra” atal borobila da, ederki uztartzen dituen umorea, absurdua, kritika politikoa, mugikortasun politika, hiria, gizarte.

-Según dicen arma mucho alboroto. -Vera, señora, pues yo ni lo noto. Parke batean hondakin nuklearrak isurtzeagatik 3 milioi dolarreko isuna ordaindu beharko du Montgomery Burns-ek, eta diru horrekin zer egin erabaki beharko dute herritarrek. Progresoaren izenean, eta Springfield mapan kokatzeko, monorraíl garraio sistema eraikitzea erabakiko dute ia aho batez. Izan ere, «Brockway, Ogdenville eta North Haverbrook mapan daude jada», monorrailari esker.

-¿Hay posibilidades de que el raíl se doble? -Ninguna amigo mío, es de acero doble.

Atala testuinguruan kokatuz, oso ohikoak bihurtu ziren monorraíl sistemak AEBetako hirietan. Tranbiak desagertuz joan ziren pixkanaka, baina monorrailak bazuen “abantaila” bat tranbiak ez zuena: airean zihohan, esan nahi baita, ez ziola autoari inongo enbarazurik egiten. Disneyland eta Disney World bezalako aisialdi guneetan erabili zen lehenik; hirietan ondoren, logika bezain arrakasta zalantzagarriz.

-¿Qué haremos nosotros los descerebrados? -Los contrataremos como empleados.

Detroit hirikoa, “people mover” izenez maltzurki bataiatua, adibide paradigmaticoa da: 4,7 kilometroko ibilbide zirkularra


du, eta, frekuentzia kontuan hartuz gero, elkarrengandik urruten dauden bi geltokien arteko distantzia azkarrago egiten da oinez, monorraila hartuta baino. Errentagarritasun ekonomikoa bezain urria du errentagarritasun soziala apenas inor mugitzen ez duen “people mover” honek.

-Acaso lo envía usted el diablo. -No señor sé de lo que hablo. Mike Davis geografo kritiko-apokaliptikoak Las Vegaseko adibidea aipatzen du “Hiri hilak. Ekologia, hondamendia, matxindatza” liburuan. Kontatzen du, turismoaren gaineko zergaren %8ko igoeraren aurrean, kasino eta hotelen lobby indartsuak diru hori “garraio publikoan” inbertitu zedin lortu zuela, zehazkiago esanda, bezeroak kasino-hotel nagusien artean azkarrago mugitzeko monorraíl sistema batean.

-Señores, Springfield no tiene elección, alcen sus manos y entraré en acción. -Monorraíl! Monorraíl! Monorraíl! Springfield hiriko azken proiektu zentzugabea izan omen zen monorraila, baina atala amaitzean oroitarazten digute ezetz: inora ez doan eskailera mekanikoak, makilatxoekin egindako etxe orratzak eta munduko luparik handienak inolako errentagarritasunik gabeko proiektuen zerrenda borobiltzen dute kreditu-tituluak hastear direla.

-El asfalto de la calle está destrozado. -Lo siento mama el pueblo ha hablado.

Springfield asko dago inguruan, tamalez; baina ez gurean, zorionez. Ez baitugu ahaztu behar gauza horiek, telebistaren bestaldera gertatzen ez direnean, “Ebrotik behera” den metafora horretan gertatzen direla soilik. -Monorraila! Donostia-Bilbo 55 minutu. -Monorrailaaaaaa! Gasteiz-Donostia 55 minutu. -Monorrailaaaaaaaaaaaaa! Bilbo-Gasteiz 43 minutu. Gure monorraila. -Monorra... dough! •



{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Bai ala ez? Ba ez! Denak ala inor ez? Inor ez!

Ez da atzoko kontua baina azken aldiotan areagotu egin da tendentzia: gogorkeria sumatzen da diskurtsoetan, baina ez ordea indarra. Formetan muturreraino eramaten dira ekuazioak, desirak eta errealitatea nahastuta maximalismoa lehenesten da, zirt edo zart, zuri ala beltz, ñabardurei eta arrazoiari leku egiteke. Gaur ikusi dut pankarta zintzilikatuta preso denak kalera ateratzea eskatuz ala bestela ez dela presorik aterako esanez. «Denak ala inor ez», hola, biribil-biribil, ate handitik denak batera eta takada berean kalera. Amestea libre, jakina, baina argi pedagogia horrekin, politika parametro horietan formulatzearekin, horrela, hain eslogan biribilekin, konklusioa argia baita: «Inor ez!». Igualtsu gertatzen da euskararen inguruan Nafarroan aldaketa euskaraz emango dela edo ez dela aldaketarik egongo esaten deanean. Ekuazioa horrela planteatuta, emaitza argia da: «Ez da aldaketarik egongo!».

Zentzu bertsuan, astean jakin dugu Sortuk EAJri gatazkaren ondorioen inguruko proposamen bat luzatu ziola, eta «bai ala ez» terminoetan espero zuela erantzuna. Sorpresarik gabeko sorpresan, erantzuna: «Ez!». Pena da, handia gainera, humanoki hain zaurigarriak eta politikoki hain urgenteak diren erronkei begira, hauteskunde atarian labankadak lepo horrela aritzea. Tristura ematen du, handia benetan.

Garai batean «Aberria ala hil» esamoldea oso erabilia zen, bolbora eta berun urte haietan normala zenez. Apurka-apurka, baina, uste izan genuen «Aberria eta bizi» zela bidea, ez zegoela zertan aberriaren zentzu tragikoa besterik gabe ontzat eman, fatalismo hori etxekotzeko beharrik ez genuela. Aberria bizi egiten dela, bizi-biziki, biziarazi, biziberritu, eta aberriaren hobe beharrez hobe genuela jarrera horrekin oratzea biziborroaren desafio ezberdinei. Horretan nengoen, baina kia! Gaixoa ni! Berriz iritsi zaigu, izurria lez, arre edo so, hau honela ala bestela mistela, bai ala ez, denak ala inor ez eta gisako zahar usaineko tik politiko etxekaltea.

Politika ez da hori. Indar erakustaldi betean, etxafuegoak botatzeko paradan, presoan egoerak gure bizkar-zorroan uzten duen min eta ezinen pisurik gabe suelto eta arin bagenbiltza... ezta ere; baina, sikiera. Gaudenean

gaudela, gure herri maite eta demontrearen erronkak direnak direla, baldintza objektiboak polit askoak izanik eta psikologia kolektiboa arrunt anormala, triste antzekoa-edo, indarrean jarri beharreko politikak bestelakoa behar du. Maila handikoa, zentzu onekoa eta pragmatikoa, zehatza eta gauzagarria, garapenerako aukerak eskaini eta ekidin daitezkeen disgustuak ekidingo dituen. Nahaspila nahikoa eta purrustak purrustategi baditugu berez, indarrak batere erakusten ez duten gogorkeria horiekin, ekuazio inposibleekin politika egiten hasteko.

Data ezberdinetan hainbeste hauteskunde dituzten gurea bezalako herriak ez dira asko egongo. Baina hori da dagoena, zailtasun erantsiak dakartzan gure destinu petrala. Hauteskundeak ate joka eta labanak zorrotz, labankadak ezker-eskuin. Egoera horretan arnas luzeko proposamenek zauri handiak izaten dituzte. Izan gatazkaren ondorioak zuzentzeko saioak izan «Euskal Bidea»

Ai, zenbat bibidore eta ustel aprobetxatu diren hemen! Zein lotsagabe eta zigorgabe aritu diren! ETaren aitzakian zenbat negozio zikin, miseri eta eskaskeri estali diren!

edo dena delakoa, berdintsu. Ez dakit, eskapatzen zaizkidan kalkulu eta arrazoiak egongo dira hor nonbait, eta ulertzen ez ditudan denbora kointzidentzi eta erabilerak azaldu ahal izango dira. Gainontzean, auzokoen berdintsu gabilta. Ustelkeriaren aparrak gain hartuta, ustelkeria parrastada amaigabea, kasu zehatzak egunkarian ezin jarraituta. Zenbat diruzale eta aprobetxategi! Ene, ene! Eta ez daitezela etorri gero ustelkeria *Marca España* dela esanez. *Made in Basque Country* totala baita, zortzi abizen euskaldunekoa, alderdiko praktika sistemikoa. Ai, zenbat bibidore eta ustel aprobetxatu diren hemen, zenbat negozio, miseri eta eskaskeri estali diren ETaren aitzakian, bandera hori astinduz atentzioa desbideratu eta zein lotsagabe, zigorgabe aritu diren batzuk herriaren diruak lapurtzen, alderdiaren zakuak giztzen. *Porca miseria*, bai, madarikatuak izan daitezela. •

BERROGEI URTEKO SORMEN HEGALDIA

Oier GUILLAN

Ediciones 3e argitaletxeak Joxan Artzeren eta Jose Luis Zumetaren «laino guztien azpitik...» eta «eta sasi guztien gainetik...» liburuak berrargitaratu ditu. 1973an plazaratu zituzten jatorrizkoak, txoriak zirelarik protagonista hala marrazkietan nola testu batzuetan. Argitaratu eta gutxira Guardia Zibilak edizioaren parte bat bahitu zuen, baina ezin izan zuen gelditu berrogeita bi urte geroago ere irakurlearen begiak betetzen dituen sormen hegaldia.

Bi liburuak eskuetan hartu eta berehala jabetuko da irakurlea ez direla edonolakoak: kartoi lodiko azalean serigrafiatutako txoriek ematen dute lehen kolpea, orriak lotzen dituen telazko bizkarrak bigarrena. Tituluei erreparatu eta, esaera zaharra lagun, bi aleak elkarrekin doazela ulertuko du berehala irakurleak: “laino guztien azpitik...”, “eta sasi guztien gainetik...”. Liburuak zabaldu eta hor ere bi dira, hain zuzen ere, liburu-objektu berezi hauetan elkarrekin doazen izenak: Joxan Artze eta Jose Luis Zumeta. Orriotan barrena sakonago jo eta harridurak ez du etekin: idazmakinez idatzitako poemak, poesia espaziala, onomatopeiak eta ahozkotasuna agerian, hizkien formarekin jolasak... eta berbak inguratuz txoriak, hitzek bezala espazioaren garrantzia nabarmenduz poemen artean.

Modernoan iduri lezake horrelako argitalpen batek, pentsaezina egungo merkatu dinamikaren zoroan. Baina izan, bada. 1973an argitaratu ziren jatorrizko liburuak, eta bere garaian abangoardistak izango zirela pentsatuko du irakurleak, arrazoiz. Harrigarriena izango da, ordea, egun ere kutsu hori mantentzen dutela. Hain gutxi egin ote dugu aurrera? Zer izan da arteaz azken berrogei urteetan, zer Euskal Herriaz? Zer diote gaur, gutaz, xoriek?

Galdera horiei erantzuna eman nahian abiatu dugu erreportaje honetako bidaia. Atzera begiratzen jarri gara lehenik: nortzuk ziren Artze eta Zumeta 1973an? Bi lagun, hamar urte lehenago motoz Paris eta Stockholmeraino elkarrekin joandako gazteak, arte eta kultur-gintzako giroetan murgildurik zebiltzan artistak. Zumeta Usurbilgo murala egiten zebilen liburuak plazaratu zirenean. Artzek bigarren eta hirugarren liburuak zituen hauek, 1969an plazaratutako “Isturitzetik Tolosan barru” ezagunaren ostekoak. 1979an plazaratuko zuen laugarrena, “Bide bazterrean hi eta ni kantari”. Guztiak dira poesia konkretuaren arloan koka daitezkeen liburuak, nahiz eta egileak aitortuko digun hasieran ez zuela etiketa hura ezagutzen.

Txoriek eman zioten forma bi liburu hauei. Aurretik, Artzek “Txoria txori” poema publikatua zuen “Isturi-



Joxan Artze eta Jose Luis Zumeta, 1973aren bueltan, «laino guztien azpitik...» eta «eta sasi guztien gainetik...» liburuak lehenengoz argitaratu ziren urtea. Garai hartan modernoan zen argitalpena, eta modernoan izaten segitzen du gaur egun.

EDICIONES 3E

tzetik Tolosan barru” lanean. Bi liburu hauetatik ere poema ugari kantatuko zituen Laboak: “Besterik ezagutu ez eta...”, “Arrano beltza”, “Zaude lasai”, “Nire juaneteak”, “Ama hil zaigu”... Baina zer diote gaur, haietaz, xoriek? Hiru elkarrizketa baliatuta lotu ditugu iragana eta oraina.

LEHEN GELTOKIA: IRUN, BELEN ORONOZ

Moskun jarri dugu hitzordua Belen Oronoz filologoarekin. Oronozek Joxan Artzeren lehen etapari buruzko tesia idatzia dauka: “JosAnton Artze *Harzabal*: inguruaren eragina poesiagintzan (1969-1979)”. Etapa horretan kokatzen dira esku artean ditugun bi liburu hauek, horregatik jo zuten berarengana Ediciones 3e argitaletxeko kideek, liburuotako testuak orraztu zitzaizkien.

Elkartu orduko lau liburu paratu ditu mahai gainean Oronozek: jatorrizko edizioak bi ale, Artzek berak utzitakoak, eta

berrargitalpeneko biak. Poltsa berezi batekin bilduta ekarri ditu zaharrak, altxorra bailiran; horrelaxe gordetzeko modukoak dira berriak ere. Izan ere, lan zehatza egin dute Ediciones 3e argitaletxe sortu berriko Alberto Lizarralde eta Miguel Murugarren editoreek. Artzek berak eskatuta prozesua nola izan den azaldu dute: «Koaderno horren orrialdeak fotografatu ondoren, ehiztarien gisara aurkitu behar izan ditugu txoriak banan-banan (eta, jakina denez, txori batzuk ikusgarriak dira eta harrokeriaz agertzen dira, baina beste asko, ordea, senez, ezkutatu egiten dira), neurriak berriro ezarri, lehenengo edizioan agertu ziren orrialde berberetan ipini eta, azkenik, txori bakoitzari ukituak eman». Testuak ere eman omen zuen bere lana: «Testuekin lana ezberdina izan da, baina adinako zehaztasunez eginda. Mekanografiatu ondoren, letrak, puntuak, komak eta, batik bat zuriuneak, orrialdeetan kokatu ditugu. Eta ahalegindu gara emaitza lehenengo edizioaren berdina ateratzeko. Baliteke kasik lortu izana».

Oronozen lana testuekin egindako lanaren zehaztasunaren gainean egotea izan da. «Jatorrizko edizioako testuetan kalkozko papera erabili zuten idazterakoan, dirua aurreztearren, horregatik batzuetan zalantza sor daiteke letraren baten edo besteren artean, punturen bat eta komaren baten artean...». Bestela, testuak bere horretan mantendu dituzte, garaiko euskararen ezaugarriekin. Oronozek aitortu digunez bi aldaketa txiki egon dira bakarrik «'Gure bazterrak' poeman koma bat gehitu du, Laboak kantatzen zuenean poemaren une batean pausa bat egiten zuelako. Eta bigarren liburuko poema bisual baten azpian ere 'oso' hitza gehitu dio, irudia hobeto uler dadin. Gainontzekoa berdina-berdina dago».

Liburu hauek kaleratu zituen lehen etapa hartan, autoedizioaren bidea hartu zuen Artzek, *Harzabal* ezizenarekin. Oronozen esanetan, «*Harzabal* ezizenaren pean Artzek idazterakoan kanpotik barrurantzko bidea egiten zuela adierazten zuen, horren ostean hartutako *Hartzut* ezizenarekin berriz barrutik kanporantzkoa. *Hartzut* ezizenarekin hasitako etapa gaur arte iristen da, izpiritualtasunarekin eta erlijioen inguruan egindako bere ikerketarekin dauka zerikusia». Oronozen esanetan «berritzailea eta esperimentalta» zen Artze. «Arriskutsua ere?» galdetu dugu, Guardia Zibilak liburu hauen edizioa bahitu zuela gogoan. Oronozen ustez gertatutakoa ez zen hainbeste edukiengatik izan, ez bada Artzeren fi-

maite ditut
maite
geure bazterrak
lanbroak
izkututzen dizkidanean

zer izkututzen duen
ez didanean ikusten
uzten

orduan hasten bainaiz,
izkutukoa...
nere barruan bizten diren
bazter miresgarriak,
ikusten



Mikel Laboak kantatutako letra ezagun asko daude aztertutako bi liburuotan. EDICIONES 3E



guragatik, «euskal erresistentzia kultural-lean eta Ez Dok Amairun bertan ere lan egiten zuen, eta, beraz, hortik ondorioz-tatuko zuten bere lana ere arriskutsua zela». Joan Mari Torrealdaik aztertzen ari garen bi liburuen gainean zentsurak egindako aipamen zehatza jaso zuen “Artaziak” lanean: «*Los sentimientos expresados rezuman resentimiento y rencor y, por supuesto, trata de fomentar todas las ideas enfermizas referidas al logro de autonomía e independencia del pueblo vasco*».

Nola ulertuko ditu liburu hauek egungo irakurleak? Oronozek ez du erantzun argirik: «Bere garaian liburu hauek abangoardistak izanik ere, edukiei erreparatzen badiegu segur aski hobeto ulertuko zituen orduko jendeak gaurkoak baino. Poema hauek islatzen dute orduan Ez Dok Amairurekin erabili ziren gai asko, Laboak kantatutako letra ezagun asko daude hemen... Horrelako gaiak orduko irakurlearentzat arruntagoak ziren, orduko egoeraren aurrean euskal kulturak bizi izan zuen erresistentzia eta aldarrikapen nahi hori islatzen dituztelako gaiok».

Ornoz oso pozik dago liburuokin, bere esanetan badelako aldarrikatu beharreko Artze bat: «Iruditzen zait ez zaiola eman berak merezi duen lekua edo garrantzia euskal literaturan. ‘Txoria txori’

Belen Oronoz filologoak Artzeri buruzko tesia dauka idatzita eta Ediciones 3e argitaletxearen berrargitarapena gertutik jarraitu du.
Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

eta ‘Hizkuntza bat ez da galtzen...’ poemak izan dira bere lanetik gogoratuenak, baina Artzek garai horretan ikuspegi artistikotik eta ideologikotik liburu hauek bezalako gauza miresgarriak egin zituen, eta gaur ere egiten ditu beste gauza miresgarri batzuk». Txoriak bidali ditugu Jose Luis Zumetarengana, erantzun gehiagoren bila.

BIGARREN GELTOKIA: DONOSTIAN, ZUMETA

Donostian bizi den arren, Usurbilen mantentzen du estudioa Zumetak. Hitz gutxiko gizona da, agian eskuekin eta irudiekin mintzo delako hobeto, beste artista plastiko asko bezala. Berrogei urte atzera begiratu eta Zumetak ez zuen imajinatuko sekula txoriek herri honen me-

moria historikoan izan duten oihartzuna, txoriek mugitzen dituzten sentimendu eta barne-nahiak. «Garai hartan igual zortziehun txori egin nituen koaderno batean». Ehunka haietatik batzuek baino ez zuten egin salto liburuotara, mordoxka hala ere. Koaderno hura ondo gorde zuen, eta horri esker egin ahal izan dute egun berrargitarapena. Txoriak banan-banan bilatu, argazkia atera, digitalizatu eta espazialki kokatu. Zer irabazi dute marrazkiek? «Lehen edizioan marrazkiaren ñabardura asko galdu ziren, linea asko loditu zelako; askoz hobeto ikus daitezke orain». Zumetaren ustez liburuak oso ondo mantentzen dira gaur egunerako, «kontzeptu aldetik, dibujo aldetik... ez daukat kontrakorik ezer esateko, gaur egunerako balio du bai portadak bai barrukoak. Nahiko modernoa da».

Txoriek bazuten, noski, zeresanik garai hartan liburuon egileentzat ere, baina lan artistikoaren oinarrian uste duguna baino arrazoi kasualagoak eta intuitiboagoak egon ohi dira sarri. Zumetak, apaltasunez, ez du hori aitortzeko arazorik, baina, funtsean, zergatik txoriak? «Ni garai hartan Usurbilgo murala egiten nengibilen, eta marrazki hauek lan haren beste muturra dira. Jose Antoniok esan zidan bere testuak ilustratzeko, eta nik txoriak egitea pentsatu nuen; nola hain zaila den ilustratzea, poema bat pentsatu nuen guztia txoriz betetzea. Txoriak hain baitira espresiboak, izan daitezke gaiztakeriaz beteak, umoretsuak...». Hamabi ordu inguru egiten zituen egunean muralean lanean: «Lanetik ateratzen nintzenean txoriak egiten nituen, blok txiki batean apunteak hartuz. Edozein lekura begiratu eta txoriak bilatzen nituen, hormetan... Gero apunte horiek koadernora pasa nituen, eta gutxi gorabehera pentsatu zer txori mota egokitu halako edo bestelako testurekin...».

Konposizio espazialak garrantzia handia dauka lan hauetan, baina hori ere oso gauza intuitiboa izan zela dio Zumetak. «Joxe Antoniok libre utzi zidan, marrazki pila bat egin eta gero testuei nolabait lotzeko». Horregatik erabili zuten, besteak beste, idazmakina testuak lantzeko, garai hartan inprentak ezin zuelako beraiek nahi zuten letren mugimendua eta jolas espaziala egin.

Liburuaren arte-objektutasunaz itaunduta, gaur agian medio gehiago egon arren gutxiago arriskatzen da? «Bai, segur aski. 60tik 70era berritasun handi bat etorri zen. Nire ustez geroztik ez da hainbeste aurreratu, baina hori maila guztietan gertatzen dela esango nuke. Arte mailan edo pintura mailan ez da hala-

Zumeta Usurbilgo murala egiten zebilen liburuak plazaratu zirenean. Artzek bigarren eta hirugarren liburuak zituen hauek, 1969an plazaratutako «Isturitzetik Tolosan barru» ezagunaren ostekoak

«Bere garaian liburu hauek abangoardistak izanik ere, edukiei erreparatzen badiegu segur aski hobeto ulertuko zituen orduko jendeak gaurkoak baino», iritzi dio Belen Oronozek, berrargitarapenean parte hartu duen adituak

Zumeta: «Liburu hauen formatua oso natural ateraz zen, ez zen bestelako pretentsiorik. Zerbait merkea egin nahi genuen, serigrafia erabili genuen azalak egiteko ni horretan nembilelako... Eskura zegoena erabili genuen, besterik gabe»

ko aldaketarik etorri, hain fuerte. Ordukoa momentu berezia izan zen: gose ginen denok, gauza berriak egin nahian».

Batetik gosea, bestetik arrisku artistikoak modu naturalean hartzea, sobera kontzeptualizatu gabe. «Liburu hauen formatua oso natural ateraz zen, ez zen bestelako pretentsiorik. Zerbait merkea egin nahi genuen, serigrafia erabili genuen azalak egiteko ni horretan nembilelako eta jendea ezagutzen nuelako... Eskura zegoena erabili genuen, besterik gabe. Egin ahala ateraz zen gauza bat izan zen». Mikel Laboaren azken diskoak «Xoriek» izena zuela ekarri dugu gogora, Zumetaren azalarekin beste behin. «Ni txoriak aspalditik ibili naiz egiten, baina besterik gabe. Mikelek sortu zuen txorien mundu hori, berea da meritua». Usurbilera eraman gaitu azkenik haizeak, edo haize kontra ibiltzeak.

HIRUGARREN GELTOKIA: USURBILAN, ARTZE

Bere etxean egin dugu zita Joxan Artzerekin. Sartu eta berehala harrapatzen dute begirada poemez estalitako panel handiek. Bertan landu, lotu, kateatu eta askatu ditu Artzek azken urteetako poemak. Dagoeneko badira paneletako orrialdeen artean espazio hutsak ere, 2013an aterabaitzuten azken urte hauetako lehen

Mikel Laboaren azken diskoak «Xoriek» izena zuela ekarri dugu gogora, Zumetaren azalarekin beste behin. «Ni txoriak aspalditik ibili naiz egiten, baina besterik gabe. Mikelek sortu zuen txorien mundu hori, berea da meritua»

emaitzak: «Heriotzaren ataria dugu bizitza» eta «Bizitzaren atea dukegu heriotza». Oraindik ere lanean jarraitzen du, hurrengo aleak izango diren horietan. Horregatik dio Ediciones 3e argitaletzeko kideek halako interesik izan ez balute taimainako lana hartzeko liburuok berrargitaratzen, berak ez zuela burua horretarako izango, «nahiko lan badut liburu berriak amaitzen!». Edonola ere, miresmenez hitz egiten du berrargitalpena zehatz gauzatzeko hartu duten lanari buruz. «Normalean editorialek egiten ez dutena egin dute hauek, gaurko egunean kulturalki goraipatzeko fenomeno da».

Artzek, hala ere, umorez oroitzen du liburuak nola hartu zuten forma; «edizioa ahalik eta merkeen egin nahi genuen, horregatik dira liburuak horrelakoak. Materialki ez dago pentsatuta ikuspegi artistiko batetik. Bizkarra telazkoa du merkeagoa zelako, azala kartoizkoa da zapata kutxen kartoia zelako, idazmakina


idatzi genuen fotolitoak sortzerakoan beruna erabiltzea ekiditeko eta dirua aurrezteko». Bere Olivetti zaharrarekin idatzi zituen testuok, «zinta berria jarri eta letra bakoitza hiru aldiz jotzen nuen beltza izateko».

Artzek oroitzen duenez zailtasunez beteriko garaia ziren haiek. Inprimategikoak lanok argitaratzeko beldur ziren eta beste leku batean inprimatu behar izan zituzten, hasiera-hasieratik edizioa bahitua izango ote zen beldurrez. Horregatik liburuak ateraz orduko, liburu dendetara zabaltzeaz gain, Artzek hamaika lagunentxeetako ganbaretan gorde zituen aleak. «Duela hiru urte azaldu zen beste poltsakada bat dozena erdi libururekin. Usurbilgo taberna batean utzi zizkidaten, jaso nitzan».

Liburuak ateraz eta gutxira ikusi zuten haien beldurrek bazutela funtsik; Guardia Zibila joan zitzaion etxera Artzeri, liburuen bila. «Dei anonimo bat jaso nuen udaletxetik, Guardia Zibila etxerantz zertokidala abisatuz. Atzeko ateraz jo nuen, eta han ikusi nituen. Etxera sartu, liburuak eskatu eta begiratzaren hasi ziren». Tenientearen nahasmena oroitzen du Artzek; «*pajaros... pajaros... pajaros... pajaros... pajaros...*», esaten zuen orriak pasatartean. Ez zuen tartean metrailetarik

Lerro hauen azpiko argazkietan Zumeta eta Artze, duela gutxi irudietan. Ez bata ez besteak ez zuten imajinatu ere egiten berrogei urte geroago beren lanaren arrastoak segituko zuenik.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS



ez antzekorik ikusten, «*pajaros... pajaros...*». “Isturitzetik tolosan barru” ere hartu zuen eta irekitzen diren olerki horiek ikusterakoan galdetzen zidan «*¿y esto que es...?*», «*‘poesia espacial’* erantzun nion nik. Berak argumentu bat bilatu nahi zuen, presoei buruzko zerbait, auskalo zer». Tipoak ez omen zekien zer egin. «Liburuak non ziren galdetu eta nik tirada txikia egin eta zabaldua genuela erantzun nion». Hortik polizia-etxera, deklarazioak, eta denborarekin epaiketa Madrilén. Gerora PSOeren eskutik eza-gun egin den Manuela Carmenak defendatu zituen. «*Este es un poeta que escribe en euskera...*» hasi zuen defentsa, eta, epaile zurrinak eten zion bere onetik aterata: «*En vas-cuen-ce!!! En vas-cuen-ce!!!*». Absolbitu egin zituzten azkenean, eta abokatuak autoz eraman zizkien Usurbilera berreskuratutako ale bakanak, auzitegiaren zigiluarekin.

Txoriak nolatan aukeratu zituzten? «Zumeta txoriak egin eta egin zebilen garai hartan. Etxean bazituen harri txikiz egindako baldosa batzuk, eta han ere txoriak ikusten zituen. Ez dut ondo oroitzen nola eman genuen urratsa, baina unerén batean erabakiko genuen bere momentuko lana eta nirea elkartzea». Konposizioa ere bere esku geratu zen: «Nire esku egon izan balitz hamar mila buelta emango nizkion!». Imajinatuko zenuen garai hartan txorien irudiak, “Txoria txori”-k akuilaturik, egingo zuen bidea? «Ezta pentsatu ere, burutik pasa ere».

Zumetak eta berak elkarrekin egindako lehenengo lana izan ziren liburu hauek. Aurretik, “Isturitzetik Tolosan barru” liburuko azala egiten lagundu zion. Nondik zetorren, baina, poesia konkretua deitua den horretarako joera? Nondik edan zuen, zeintzuk zituen iturriak? «Poeta konkretuak oso berandu ezagutu nituen, Brasilgo eta Frantziako poeta konkretuen berri izan nuenerako nire lehen liburua aspaldi egina zegoen». Garaiko giro artistikoan guztiz murgildua zebiltzan hala ere, bada John Cageri eskainitako poema bat liburu hauetan adibidez –Iruñeko Topaketetan ezagutu zuten elkar–. Nola egiten zuen, orduan, poesia mota honetara iristeko? «Nire idazteko modua galderak egitea zen, testuak itauntzea. Zergatik idatzi behar dut lerro guztiak berdin jarrita, zergatik paper mota baten gainean eta ez beste batean...? Denari galderak egitetik eta erantzuten saiatzetik etortzen zitzaidan modu batera edo bestera egiteko ideia; enfasi handia zuen testu bati letra tipo handiagoa jartzen nion...».

Garairik esperimentalena hasierakoa izan bazuen ere, osteko performance eta



1973. urteko lehen edizio hura aparte gordetzeko moduko altxorra zen eta oraingo berrargitarapena ere mimo handiz eginikoa izan da. Edizio berria ere apartekoa da.
EDICIONES 3E

liburuetan suma daiteke konstanteak direla hainbat ezaugarri, testuak agertzeko moduaren garrantzia adibidez. Elkar argitaletxearekin atera dituen liburu berriak kasu *intomso* izeneko teknikarekin plazaratu dira, alegia, orrien pliegoak goitik loturik. «Liburuak gillotinatzea gauza gogorra iruditzen zait, kra...! kra...! *Intomso* moduan jarrita gauza intimoa bilakatzen da, labana hartu eta norberak nahi duenean irekitzen ditu pliegoak. Eta ez baduzu ireki nahi ez da ezer gertatzen, hor geratuko dira poemak zain. Baina eginez gero, zure aurrean irekitzen da gero irakurriko duzuna». Umorez gogora-

Zailtasunez beteriko garaiak ziren haiek. Hasieratik edizioa bahitua izango ote zen beldurrez ibili ziren. Horregatik, liburuak atera orduko, liburu dendetara zabaltzeaz gain, Artzek hamaika lagunén etxeetako ganbaretan gorde zituen

«Dei anonimo bat jaso nuen udaletxetik, Guardia Zibila etxerantz zetorkidala abisatuz. Etxera sartu, liburuak eskatu eta begiratzen hasi ziren». Tenientearen nahasmena oroitzen du Artzek; «‘pajaros’... ‘pajaros’... ‘pajaros’...»

tzen duenez, jende askok esaten dio ondo bukatu gabe utzi dizkiotela liburuak.

Esan izan da, ez ote zuen bestelako arteen berri izan Zumetarekin urte batzuk lehenago European zehar Vespan egindako bidaian. Artzek berehala argitzen du kontua: «Ez genuen dirurik horrelakoen berri izateko, bizimodua ateratzearekin nahiko lan!». Oroitzen hasita Zumetarekin egindako bidaia izan dugu mintzagai: Artzeren Vespa zaharrean egin zuten Parisera bidaia, han zirelarik nola egiten zuten lan papera etxeetan jasoz eta pisuaren arabera salduz, klarionaz marrazkiak eginez espaloietan... Bigarren eskuko auto bat erostea zuten xede, Stockholmira iritsi arte jarraitzeko, «baina gastatu egiten genuen dirua». Stockholm bertaraino Vespan jarraitzea deliberatu zuten azkenik, baina Parisera iritsi orduko lapurtu zieten errepuestoko gurgila, «lapurtu beharko genuen guk beste bat...». Zumeta etxera bueltatu zenean Artzek Londresera jarraitu zuen eta bi urte egin zituen han; «zine asko ikusi nuen zine klubetan, hori bai...».

Arretaz jarraitu ditu kazetariak anekdotak, iraganeko istorioen artean historia ikusi uste duenak nola, liburu hauetako txorien hegaldian hala.

IGANDE ARRATSALDETA KO IKUSKIZUN EMOZIONANTEAK



iRRITZIA:



Ainara
Azpiazu
"AXPI"

EMAKUMEAK ESKU PILOTAN

Iraganean salbuespen, egun, aldapa zelaitzen eta etorkizuna marrazteke

 **KIROLA /** Mikel IBARGOEN

Astebete da Emakume Cup txapelketako finala Zamudion jokatu zela. Emakume Cup maila nagusian emakumeek jokatu duten esku pilotako lehen lehiaketa izan da, eta, hortaz, zita historikoa izan zen hilaren 6koa. Aurreneko pausoa eman da emakumeek esku pilotan joka dezaketela erakutsi eta duela gutxi utopia zena errealtate bihurtzeko.

Erabateko arrakasta izan zuen finalak. Harmailak bete egin ziren, sekulako giroa egon zen eta partidak ere politak eta orekatuak izan ziren. Ez dago gehiago eskatzerik». Hitz horiekin laburbildu du Iker Amari-ka Bizkaiko Pilota Federazioko presidenteordeak Zamudion jo-
katu zen Emakume Cup txapel-
ketako finala. Gezurra badirudi

ere emakumeek maila nagusian jokatu duten lehen txapelketa da, eta, egun historikoa izaki, se-
kulako ikusmina sortu zen fina-
laren atarian. Emakume kirola-
riak bigarren edo hirugarren
plano batean geratu ohi dira he-
dabideetan, baina, behingoaga-
tik bada ere, ekimenak sekulako
jarraipena izan du. Protagonis-
tak egunkarietako lehen orrie-
tan agertu dira, hainbat irrati
eta telebistetan hitz egin dute

Joan de astean Zamudion
jokatu zen Emakume
Cup txapelketako finala.
Giro paregabea burutu
da emakumeek maila
nagusian jokatu
esku pilotako lehen
txapelketa ofiziala.
Monika DEL VALLE | ARGAZKI
PRESS

eta denen ahotan izan dira. «Ba-
dakigu berez gauza positiboa
dela, baina egoerak gainezka
egin digu. Gu ez gaude ohituta
honetara eta bat-batean horren-
beste dei eta elkarriketa kudea-
tu behar izatea ez da erraza»
azaldu du Ane Baraiazarrek,
Txokoan Larrabetzuko Pilota El-
karteko presidenteak.

Emakume Cup txapelketa Biz-
kaiko Pilota Federazioak bidera-
tu eta bultzatu du. Hori bai, an-
tolatzaileak eurak ere ezustean
harrapatu ditu izandako oihar-
tzunak. «Bagenekien ekimen
aitzindaria zela, baina ez genuen
espero horrelakorik. Federazio-
an aspalditik mahai gainean ge-
nuen proiektua zen; azkenean
martxan jarri genuen eta aurre-
ra egin du. Askok ez zuten
proiektuan sinesten, esaten zu-
ten pilotan hasitako emakume-
ek segituan utziko zutela, baina
ez da hala izan eta denborak
arrazoia eman digu. Emakume-
ek sekulako ilusioa agertu dute,
gustura dabilta eta hori age-



rian geratu da», argitu du Amarikak.

Baraiazarra izan zen txapela jantzi zuen emakumeetako bat. Jone Aranguren (Algorta, 1990) izan da bere bidelaguna txapelketan. Arangurennek ilusio handiarekin bizi izan zuen finaleko astea, baina, aldi berean, haien inguruan sorturiko boomak presioa handia sorrarazi zion. «Finala irabazitakoan sekulako lasaitasuna sentitu nuen, izan ere, aurreko astea urduritasun handiarekin bizi izan nuen hedabideetan izan genuen presentzia dela eta. Ni ez nago horretara ohituta, eta nire onetik irtenda nengoen, ia ez nuen lorik egin aste osoan: hedabideen deiak, ehunka mezu, jende askoren gomendioak, ikastolara iritsi eta pankartak animo mezuekin... Eskerrak lan egin beharra nuela eta pentsatzeko denbora asko ez nuela, bestela erotu egingo nintzen!», kontatu du.

Finalari dagokionez, gauzak ez ziren behar bezala hasi Aranguren eta Baraiazarrarentzat, izan ere, Jone Goiri eta Amañur Delgado 9 eta 2 aurreratu ziren markagailuan. Zati horretan irabazleak deseroto eta kantxan haien lekua aurkitu ezinik ibili ziren. «Partida hasieran belauak dardarka nituen, baina gero pixkanaka lasaitzen joan nintzen. Telebista, kamerak, argazkilariak... oso zaila da baldintza horietan jokatzeko eta normalean baino maila kaskarragoa eskaini genuen», argitu du Arangurennek. Pixkanaka partidari sartu eta haien jokoa egiten hasi ziren, eta, hala, markagailua 11 eta 11 berdintzea lortu zuten. Haatik, Goiri eta Holgado berriro ere tartea ireki zuten markagailuan, 16 eta 14 aurreratuta. Hortik aurrera ordea, Aranguren eta Baraiazarra nagusi izan ziren: markagailua irauli eta finala irabaztea lortu zuten. Hala, 17 eta 22 izan zen behin betiko emaitza.

Jaialdiari sari banaketarekin eman zitzaion amaiera eta bertan oso une hunkigarriak bizi izan ziren. Batez ere, proiektua abian jarri zuten amentzat izan zen berezia, horrenbeste esfortzuz fruituak eman dituela iku-



sita ezin izan baitzioten emozioari eutsi: finalisten eta haien senitartekoen arteko besarkadek, musuek, pozak eragindako negarrak... hartu zuten pilotaren lekukoa. Jone Arangurennek asko gozatu zuen une horietan, nahiz eta bere familiako kiderik han ez izan: «Familiakoei eta lagunei partida ikustera ez joateko eskatu nien oso urduri jartzen naizelako, eta, ondoren, ospakizunen garaian, faltan bota nituen. Baina, halere, oso momentu polita izan zen».

Orotara 28 emakumek hartu dute parte Emakume Cup txapelketan, hamalau bikotetan banatuta. Horietatik hamaika Txokoan Larrabetzu taldekoak izan dira, bi Zornotzako Lagun Onakekoak, eta, bestea, Munitibarko Lea Motrollokoa.

UTOPIA ZENA ERREALITATE EGINA

Emakume Cup izan da orain dela bi urteko Gabonetan piztutako suaren azken emaitza. Garai hartan Morgan (Bizkaia) ospatu zen umeen kontzentrazio batean ama multzo bat konturatu zen seme-alabek eta gizonen esku pilotan jokatzeko zutela, baina, haiek, aldiz, ezetz. Guk zergatik ez? Hausnarketa hori egin zuen emakume multzo hark eta modu horretan Larrabetzun esku pilotan jokatzeko hastea erabaki zuten. Hori izan zen lehen urratsa. Hastapenean sei emakume ingu-

Harmailak lepo bete ziren finaleko partidaren bueltan. Antolatzaileen aurreikuspenik onenak gaititu ditu txapelketak.
Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

ruko taldea besterik ez zen hasi. Pixkanaka-pixkanaka, ordea, emakume gehiago joan ziren taldean sartzen.

Hala ere, benetako jauzia ez zen iritsi pasa den udaran Bizkaiko eta Nafarroako pilotarietako elkarrekin aurka aritzeko antolatutako topaketetara arte. Izan ere, Nafarroan ere bada esku pilotan aritzen den emakume multzo bat, Karlos Armendariz pilotari ohiaren gidaritzapean. Hala, haiekin topaketa bat antolatu zuten abuztuaren 15ean, Larrabetzuko frontoian. Hitzordu hark sekulako arrakasta izan zuen, eta, hori ikusirik, San Fermin Txiki festetarako beste zita berri bat jarri zuten. Bi jaialdi horiek presentzia nabarmena izan zuten hedabideetan, eta horrek are eta emakume gehiago animatzeko balio izan zuen.

Hori izan zen, esaterako, Ainhoa Alaiogoikoaren kasua (La-

rrabetzu, 1975): «Udaran Larrabetzun nafarren aurka jokaturiko partidak ikusten egon nintzen, eta hor sortu zen nire barruan jokatzeko gogo. Hala, urrian probatzea erabaki nuen». Bi hilabete geroago egin zuen gauza berbera Jone Arangurennek. «Nik kirol pilo bat praktikatutitut eta betidanik gustatu izan zait pilota ikustea. Lankide batek esan zidan bere alaba Larrabetzun pilotan jokatzeko hain zela eta egun batean bertara joan eta probatzea erabaki nuen. Egund hartan ondo ikusi nuen nire burua, emakume guztiak oso jatorrak ziren, eta, gainera, sekulako giroa zegoen. Ondorioz, jarraitzea erabaki nuen».

Orain egoerak bestelako bide bat hartuagatik, hasieran, haien buruetan ez zegoen txapelketarik jokatzeko; kirola egitea eta ondo pasatzea, besterik ez zuten nahi. Halere, xedea ez da aldatu ordutik hona. «Gure helburua kirola egitea eta ondo pasatzea da. Guk ez genuen pentsatzen txapelketarik jokatzeko hasiera batean, baina, dena den, horrek ez ditu gauzak aldatuko eta helburu berberekin jarraituko dugu. Hori bai, ea honek guztiak inguruko herrietako emakumeek nola jokatzeko dugun ikusteko balio duen, eta ea haiek ere animatzen diren, izugarri ondo pasatzen dugu eta», nabarmendu du Alaiogoikoak.

Orain arte emakume asko esku pilotara ez gerturatzearen zioa piloten gogortasuna izan da. Izan ere, telebistan profesionalek erabiltzen dituzten piloten soinua entzutearekin bat, pilota horiei jota eskuek ikaragarri sufrituko duten ustea zabaltzen da. Dena den, Bizkaiko Federazioaren laguntzaz eta hainbat proba burutu ostean, topatu dute beraien ezaugarrietara ondo egokitzen den pilota bat. Goxua izenez ezagutzen dena, hain zuzen. «Oso pilota polita eta egokia da guretzat. Behin eskua eginda ez du minik ematen, eta, beraz, probatzeko gonbidatzen ditut beldur hori duten emakumeak», zehaztu du Arangurennek. «Pausu hori ematea ezinbestekoa zen. Finalaren aurkezpen egunean Aretxabale-

«Bagenekien ekimen aitzindaria zela, baina ez genuen espero horrelako harrerarik. Federazioan aspalditik genuen proiektua zen; azkenean martxan jarri genuen eta aurrera!»

Emakume asko esku pilotara ez gerturatzearen zioa piloten gogortasuna izan ohi da. Bizkaiko Federazioaren laguntzaz eta hainbat proba burutu ostean, topatu dute pilota egokia



ta eta beste hainbat pilotari profesional zeuden Miribillako frontoian. Haien pilota bat probatzea erabaki genuen eta guretzat ezinezkoa da hain pisutsu eta gogorrak diren pilotak mugitzea», gehitu du. Bestalde, pilota joz mina sentitzen dutentzat badaude min hori ekiditeko babesak ere. «Batzuek takoak jartzen dituzte, beste batzuek takoak dituzten eskularruak, eta badago babesik gabe jokatzeko duenik ere», kontatu du Alaiogoikoak.

Txokoan Larrabetzu pilota elkartean 22 emakumek dihardute. Multzorretan adin eta ezaugarri guztietako emakumeak topa daitezke, eta, Alaiogoiakoaren ustez, horrek erakusten du edonork joka dezakeela pilotan «Bertan 18 urtetik gorako emakume guztiek dute kabida. Ez da beste munduko abileziarik behar jokatzeko hasteko». Entrenamenduei dagokienez, astear-

reetan egiten dute asteroko lan saio ofiziala Larrabetzuko frontoian, Joanes Kamararen agindupean. Halaber, posible izanez gero, beste egun batzuetan ere frontoia hartu eta jokatzeko geratzen dira taldeko beste kide batzuekin gustatzen zaien kirola egin eta hobetzen jarraitzeko.

IRAGANEAN SALBUESPEN

Pilotan hasi den emakume multzo honek hitz onak eta animoak baino ez ditu jaso jendearen partetik. Bizkaiko Federazioak emaniko laguntza eta erraztasunak ere behin eta berriz azpimarratzen dituzte, eta esker oneko hitzak baino ez ditu Arangurenek ere. «Materiala eman digute, dena prestatu dute eta pilota bat mimatu gaituzte, eta hori guztia asko baloratzen dugu».

Iragan hurbil batean, ordea, kontuak oso bestelakoak ziren. Esku pilotan jokatzeko zuten emakumeak salbuespen ziren,

Ane Baraiazarra eta Jone Aranguren nagusitu ziren finalean. 22-17 irabazi zieten Jone Goiri eta Amañur Holgadori. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

eta, halaber, garai haietan ez zegoen ondo ikusita emakumeak frontoian aritzea. Primeran gogoratzen du egoera hori Nagore Arozenak (Lizartza, 1985): «Nire etxean amonak ez zidan uzten pilotan jokatzeko. Esaten zidan frontoia ez zela neskentzako lekua eta parkera joan behar nuela gainontzeko neskekin, baina niri pilotan jokatzeko gustatzen zitzaidan eta ihes egin eta fron-

Txokoan Larrabetzu pilota elkartean 22 emakumek dihardute. Multzorretan adin eta ezaugarri guztietako emakumeak daude, pilotan edonork joka dezakeen seinale

«Nire etxean amonak ez zidan uzten pilotan jokatzeko. Esaten zidan frontoia ez zela neskentzako lekua eta parkera joan behar nuela gainontzeko neskekin»

toira joaten nintzen. Jendeak esango zuenaren beldur izaten nintzen; pentsa, marimutil bat nintzela esaten zidaten». Patri Espinarrek ere (Usansolo, 1986) ez zuen batere laguntzarik jaso gurasoengandik, eta bere kabuz moldatu behar izaten zuen entrenamendu eta partidetara joateko. «Nire entrenatzaileak pilota bat laguntzen zidan eta hori ezinbestekoa zen, izan ere, nire gurasoek ez zuten begi onez ikusten nik kirola egitea; ez zidaten batere laguntzen».

Urte batzuk atzera, emakume bakan batzuk baino ez ziren ibiltzen esku pilotan, eta, hortaz, mutilekin entrenatu eta jokatu behar izaten zuten. Hori izan zen txikitatik bizitzea egokitu zitzaizen egoera eta normaltasunez hartzen zuten. Oro har, jendeak eta inguruko mutilek errespetatzen zituzten eta ez zitzaizen egoera bereziki desatsegini- nik igarotzerik tokatu. Haatik, partidak jokatzera haien ingurutik kanpora joaten zirinean aitortzen dute jendea harritu egiten zela. Ohikoa ez izanagatik bazegoen hasieran barre egiten ziren mutilik ere. Hori bai, «muti batzuek barre egiten zuten ni ikustean, baina, gero, nola jokatzeko nuen ikustean eta irabazten nienean, isildu egiten ziren», gogoratu du Maider Mendizabalek (Anoeta, 1977). Halaber, mutil batzuei egoera hori kudeatzea eta neska bat berai- ke baino hobea zela onartzea kosta egiten zitzaizela dio Espinarrek: «Batzuk negarrez hasten ziren, beste batzuk tranpa egiten nuela esaten zidaten... Dene- tarik bizitzea tokatu zitzaidan».

Maila teknikoari dagokionez argi dute hirurek mutil eta nesken artean ez dagoela desberdintasunik. Aldea indarrean dagoela diote, ez gainontzeko arloetan. Horrenbestez, 13-14 urtera arte neskak mutilekin inongo arazorik gabe joka dezaketela baieztatzen dute. «Emakumeak tekniko- koki mutilak bezain onak edo hobeak izan gaitetzke, eta hori kantxan erakusten genuen. Kon- tua entrenatzea eta orduak sar- tzea da», zehaztu du Mendizaba- lek. Hori berresten du garai hartan aurkari izan zituzten zen-

Maite Ruiz de Larramendik gerora pilotari handia izatera heldu zen Ruben Beloki bera menderatu zuen Nafarroako binakako txapelketako finalerdietan 11 urte zituela

bait pilotariren mailak. Maite Ruiz de Larramendik (Beasain, 1973), esaterako, Nafarroako binakako txapelketan Ruben Beloki bera menderatu zuen finalerdietan, 11 urte zituela. «Ruben Belokik Javier Lopez Vallejorekin (Osasunako atezain ohia) osatzen zuen bikotea. Denok dakigu Belokik ze maila duen eta orduan ere asko jokatzen zuen. Dena den, irabaztea lortu genuen, nahiz eta gero finala galdu». Finallean bizitakoa, gainera, guztiz bitxia izan zen. «17 eta 9 irabazten hasi ginen, baina, ondoren, angelusa erreztatzeko geratu zuten partida, eta bueltan ez genuen lortu tanto bakar bat ere egitea! Azkenean 18 eta 17 galdu genuen», amorruez gogoratu du pasadizoa Ruiz de Larramendik. Arantzatxo hori handik oso gutxira atera zuen Donostiako Atano III.a pilotalekuan, Euskadiko txapelketa irabazita.

Nagore Arozenak, berriz, bikotekide ezaguna izan zuen. Egun, Asegarceko aurrelaria den Mikel Olaetxea, hain zuzen. Bien artean makina bat txapel jantzitakoak dira. «Olaetxea oso urduria zen txikitan; nik, berriz, lasai jokatzen nuen beti. Hala, ni lasai nengoela ikusita, bera ere lasaitu egiten zen, eta orduan hasten zen bere mailan jokatzen. Oso ondo moldatzen ginen eta bikote ona egiten genuen», azaldu du. Olaetxearekin bizitako momentuak errepasatzen hasita, barrez gogoratu du pasarte bat: «Burlatara jokatzeraz joaten ginenean partidaren ostean ogitarteko bat ematen ziguten, eta, askotan, nik nirea eta berea jaten nituen, ahul samarra zen jaten eta!». Horrez gain, oroitu du garai haietan izan zuela beste aurkari ezagunik ere: «Behin Markel Bergara Realeko jokalararen aurka jokatu nuen final bat Elgoibarren. Irabazi egin genuela gogoratzen dut, baina baita oso ondo jokatzen zuela ere».

Dena den, aipatu moduan, esku pilotan teknikaz gain indarrak ere zerikusi handia du. Hala, 13-14 urtetik aurrera mutilak gizontzen hasten direnean indar asko hartzen dute oso epe motzean, eta, hori dela eta, puntu horretara iritsita ezinez-

Nagore Arozenak bikotekide ezaguna izan zuen umetan. Gaur egun Asegarceko aurrelaria den Mikel Olaetxea, hain zuzen. Bien artean makina bat txapel jantzitakoak dira

ko bilakatu zitzaien mutilekin lehiatzen jarraitzea, eta, neskarik ez zebilenez, pilota utzi egin behar izan zuten Arozena eta Mendizabalek. «Teknikoki ni baino okerragoak ziren mutil asko eta asko, baina, indar gehiago zutenez, pilota askoz atzerago botatzen zuten eta nik ezin nuen. Horrek sekulako amorrua ematen zidan, eta, erridikulua egitea inori gustatzen ez zaionez, utzi egin behar izan nuen», kontatu du Mendizabalek. Espinarrek 17 urtera arte jarraitu zuen pilotan, baina, ondoren, pena handiarekin bada ere, amore eman zuen. «Niri pilota beste kirolak baino askoz gehiago gustatzen zitzaidan, baina kadete mailatik gazte mailara jauzi ikaragarria dago, pilotak askoz pisutsuagoak dira eta ezin nituen mugitu».

Oso bestelako arrazoiengatik esan behar izan zion agur pilo-

Emakume Cup txapelketa lehen harria izan dela nabarmendu dute guztiek, eta aurrerantzean emakume pilotariak bidea egiten segitu beharko dutela. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

tari Ruiz de Larramendik. «14 urterekin nire aitari klubeko teknikariak eta herriko beste pertsona batzuk burua jaten hasi zitzaizkion. Esaten zioten aurrerantzean ezingo nuela jokatu, eta, jarraituz gero, eskuak txikituko nituela. Nik eskuak primeran nituen, ez nuen minik hartzen eta mutilekin lehiatzeko gai nintzen. Hala ere, aitzak, jendearen esanei kasu eginez, pilota utzi eta akordeoia jotzen hasteko esan zidan. Ordutik aurrera ez zidaten txapelketetan izana ematen uzten. Hura ez zen nire erabakia izan eta horrek ematen dit amorrua. Nik ahal nuen bitartean jokatzen jarraitu nahi nuen».

Laurek palan topatu zuten ihesbidea eta modalitate horretan aparteko lorpenak eskuratu-takoak dira. Munduko txapelketa irabaztea lortu dute Ruiz de Larramendi eta Mendizabalek. Arozenak brontzezko domina irabazia du txapelketa berean eta Espinarrek ere urrea dastatu zuen 22 urtez azpikoen mailan.

AURRERANTZEAN ZER?

Emakume Cup txapelketarekin Mendizabal, Ruiz de Larra-

mendi, Espinar eta Arozenak izan ez zuten aukera izan dute emakumeek. Lehen harria jarrita, proiektuari jarraipena eman behar zaio orain, eta zeregin horretan jarraituko dute bai antolatzaileek eta baita protagonistek ere. «Espero dezagun egindako lan guztiak zerbaitezarako balio izatea eta gero eta emakume gehiago esku pilotara gerturatzea», esan du Baraiazarrak. «Hau lehenengo urratsa baino ez da izan. Orain helburua umetan pilotan jokatzen hasten diren neska gazteak maila nagusira iristen direnean pilotan jokatzen jarraitzeko aukera izatea da. Halaber, ekimena beste federazio batzuetara zabaltzea eta guztion arteko elkarlanarekin Euskal Herri mailako txapelketa antolatzea oso polita litzateke», gaineratu du Amarikak.

Ekimenak aurrera eginez gero Espinarrek ez du baztertzeko berrirori ere takoak janztea. «Nik faltan botatzen dut eskuz gozatzeta, eta, orain kontua zabaltzen ari denez, posible badut eta uzten badidate, gustura hartuko dut parte». Ruiz de Larramendik pilotan diharduen iloba bat du eta bere ametsa litzateke berarekin eskuz txapelketa bat jokatzea. «Ikaragarria litzateke. Aukera balego ez nuke zalantzarik izango. Hori errealitate eginez gero lasai erretira nintekela!» dio barrez.

Maidier Mendizabalentzat positiboa da emakumeek kirola egitea eta pilotaren munduan barneratzea, baina, hori esatearekin bat, ondorengo hausnarketa ere egiten du: «Oso emakume gutxi gabiltza pilotan, eta, modalitate desberdinetan parte hartzen hasten bagara, modalitate bakoitzeko emakume kopurua oso baxua izango da, eta, ondorioz, mailak ere behera egingo du neurri berean. Beraz, ez al da logikoagoa denak modalitate berean jokatzea?». Iritzi berekoa da Arozena ere.

Momentuz, Emakume Cup txapelketak emakumeei orain arte izan ez duten aukera eskaini die. Etorkizunean zer gertatuko den denborak argituko du.





Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Inposizioari aurre egiteko moduak

Dagoeneko LOMCE legea eragina izaten ari da Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 5. mailan, eta Lanbide Heziketan. Lehen Hezkuntzako maila horietan Ingurune ikasgaiak aldaketa formalak izan ditu, bi ikasgaitan banatu dute-eta: Natura eta Gizartea. Aurrerantzean Erlijio ikasgaiak notarako balioko duenez, gurean Balio Sozial eta Zibikoak izeneko pisuzko ikasgaia egin beharko da haren orde.

Ebaluazioa izango da LOMCeren inposizioaren ardatz nagusia, Estatuak agindutako edukiak menderatzen direla bermatzeko kontrol sistema, alegia. Espainiako Estatuak inposatutako edukien %50 ebaluatuko dira hain justu. Ebaluazioa errebaliden bidez gauzatuko da, eta, hala, ebaluazio sistema hezkuntza zentralizatzeko funtsezko baliabide bilakatuko da. Heziguneari eskatuko zaio haurrari kalifikazio numeriko bat jartzeko. Bestalde, gainditzen ez diren ikasgaien arabera, ikasleek errepikatu egingo dute edota hurrengo ikasturtera igaroko dira; hau da, ikasgai batzuk pisuzkoak izango dira eta besteak ez.

Eusko Jaurlaritzak erabaki du ikasturte honetan kanpo azterketa bakarra ezartzea, 3. mailakoei, hain zuzen. Ezagutarazi ez diren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 30 ikastetxetan egingo dute azterketa eta ez dio eragingo ikasleen espedienteari. LOMCEk agindu bezala, tokian tokiko administrazioak diseinatuko du azterketa. Erabaki dutenez, azterketaren emaitzak ez dira jendarteratuko.

Lanbide Heziketak ere pairatuko ditu aldaketak. Maila berri baten sorrera ezarri du LOMCEk, Oinarrizko Lanbide Heziketa, DBHn ezinean dabilen ikasleak jasotzeko. Orain arte 16 urte-rik gorako ikasleak joaten ziren hastapen eskoletara; aldaketarekin 15 urte-ekin joango dira. Nafarroan martxan dago aldaketa eta Jaurlaritzak ordezkotako formula bat jarri du abian: Prestakuntza Iragankor Integratuko Programak. Jaurlaritzak iragarri du, gainera, ez duela bultzatuko DBHko 3. mailatik Lanbide Heziketarako saihasbide hori.

Legeak aukera emango die enpresari prestakuntzaren zati bat nolakoa izango den eta nork emango duen erabakitzeko, hezkuntza erabat merkantilizatu eta instrumentalizatu den beldurra harrotuz. Nafarroako Hezkuntza kontseilariak begi onez ikusi du Madrilgo Gobernuak diseinatu duen hezkuntza legea. Jaurlaritza, bere aldetik, 2013ko udazkenean aurkeztu zuen "Heziberri 2020" curriculum berria lantzen ari da. Hasiera batean LOMCeri aurre egiteko baliatu nahi zuen. Berehala, ordea, legea bete behar izenean, haren tarteko nola bilakatzen ari den ikusten ari gara.

«Heziberri 2020» egitasmoaren helburuetako bat beste hezkuntza lege bat bultzatzea da. Izan ere, 1993ko Hezkuntza Publikoaren Legea ataka estu bilakatu da hiru lurraldeetako hezkuntzarentzat, eta bai egungo errealtateak bai jendartearen zati handi batek agortzearen den legea gaitzizko duen lege bat eskatzen dute. Legealdia amaitu aurretik ipiniko omen dituzte

zutabeak. Ikustear dago herri gisa behar dugun hezkuntza eredua erabakitzeke eta eraikitzeke, eta Espainiako eta Frantziako estatuen inposizioen gainetik bidea egiteko, baliagarria izango den. Bien bitartean, hezkuntza eragileek beren jarrera agertu dute: batzuek, irmo, eta, besteek, berriz, epel. Nork bere posizioak hartu ditu, interesei eta komenientziei erreparatuz batak bat. Askok hauteskundeetan ipinita dute itzaropena, PPk Gobernua galtzeko amaiera emango diolakoan LOMCeri, amets txar gisa lausotuz.

Hezigune askotan, zorionez, egunero aniztasunari, sormenari, pentsamendu kritikoari, inklusioari, euskarari eta euskal nortasunari leku egiten saiatzen ari dira. Horra hor erantzun ederra ezartzen ari zaizkigun hezkuntza erreformari!

Zer pentsa ematen du. Gai izango ote gara oraingo honetan nork bere zilborrari begiratzeari utzi eta elkarrekin herri gisa behar dugun horretan azpimarra eta ahalegina jartzeko? •



Ebaluazioa izango da LOMCeren inposizioaren ardatz nagusia.

THINKSTOCK

{ koaderno } Iker Barandiaran

Eragileen motibazioa landu

Topaldian kulturgintzaz jardun zen eta asko hitz egin zen berrasmatzeaz, gaur egungo garaietara egokitzeaz eta motibazioa lantzeaz. Ez dut esango atsekabea nagusi izan zenik, baina hainbeste indar eta gogo jartzen den horretan hartzailleengandik *feedback* handiagoa lortu eta horren aurrean asmatzeko nahia agertu zen.

Musikaren esparruan gauza asko aldatu dira, hainbeste garai batean ezagutu genuena ia irauli dela. Gezurra da musikak bere balioa edo balioak galdu dituela, batzuek “aren-gatzen” duten arren. Oraindik ere eginkizun garrantzitsuak betetzen ditu gizartean, adin, gizarte maila, joera, pentsaera eta sentsibilitateen tamainakoak ia. Pertsona eta giza talde guztiok ez dugu musika modu berean ezta helburu berarekin entzuten; eta momentu guztiak ez dira berdinak.

Entzulearentzat musikak alaitzeko, suspertzeko, deskonektatzeko, sentitzeko, amesteko, ikasteko, amorratzeko, bat egiteko zein konektatzeko balio dezake. Eta musika idatzi, interpretatu edo zabaltzeko nahi duenarentzat bide izan daiteke sentsazioak, emozioak, mezuak edo entretenimendu hutsa atera eta zabaltzeko.

Batzuek esan ohi dute musikak, oro har, galdu duela bere funtzio sozial eta politikoa –politika ez da bakarrik alderdi politikoen ingurukoa–, gaur egungo hartzailleentzat dibertimendu hutsa dela, ez besterik. Ez da horrela, eta are gutxiago Euskal Herrian. Baina egia da gaur egun musika sortu eta kontsumitzeko moduetan kontzientziak iratzarri edo pizteko zein eraldatzeko nahia nabarmen moteldu dela.

Azken 30 urteotan kontzertuek bilakaera eta gorabeherak izan dituzte, eta horretarako azpiegitura, interesa eta ilusioa eraldatzen joan dira. Euskal Herrian, iraganekoa ahaztu gabe, 80ko hamarkadan hasi zen tamainazko kopuruko kontzertuen antolatzea, eta batez ere nagusitu zen rockaren kasuan. Batetik, baliabide oso-oso gutxirekin baina tonaka ilusio bizkarrean hartuta, txanpinoiak moduan hasi ziren taberna, plaza, kale zein etxabeetako zuzenekoak. Eta, bestetik, lehen promotoreen eskutik, Espainiako eta urrunagoko taldeen bisitak biderkatu ziren. Punkaren ezta musikaren taldeak eta zaleak ia ezereztik abiatuta gutxienean azpiegitura sortzera bultzatu zituen: gaztetxeak, fanzineak, irrati libreak, lehen diskoetxeak, grabazio estudioak...

90eko hamarkadan azpiegitura hori garatu eta egonkortu egin zen; eta bide eman zion musika estilo gehiago esperimentatu eta zabaltzeko. Iraganeko diskoteka eta dantzalekuek lekua egin zieten espresuki sortutako kontzertu areto eta kafe antzokiei. Baina, horien aurretik, diskoetxe, grabazio estudio eta batez ere gaztetxeak biderkatu ziren. Ia herri guztietan okupatzen ziren gazteentzat lokalak, kontzertu programazio handia zuten eta ateak ireki zitzaizkien gurean garatzen ari ziren musika estilo ugari; ez bakarrik okupazioarekin eta mugimendu autonomoekin lotura zuzenena zuten punk eta hardcoreari.

Musikak profesionalizazioa bizi izan zuen hainbat alorretan: musikari batzuen kasuan eta gehiago horren inguruan dauden beste lanbide batzuetan (diskoetxe, grabazio estudio, teknikari...). Aldi berean, hainbat udalek kultura teknikariak jarri zituzten eta erakunde publikoetatik ere eskaintza iraunkorrak lantzen hasi

Musikak oraindik eginkizun garrantzitsuak betetzen ditu gizartean, adin, gizarte maila eta pentsaeren tamainakoak ia

ziren. Gaztetxeak eta bestelako ekinen burujabeek topera jarraitu zuten kontzertuak antolatzen.

Baina denboran jauzia eginez, bizi dugun krisi ekonomikoak eta BEZaren biderkatzeak udalen ekimena izugarri murriztu du, eta musikari asko biziraun eta aurrera egiteko ipar gabe gelditu dira. Gaztetxeak, ordea, lehen baino gutxiago daude eta kontzertu gutxiago antolatzen dituzte. Zergatik? Publikoak ematen duen babes txikiagoari batu behar zaio, Euskal Herriko eta kanpoko taldeen eskaintza eta jotzeko nahia hain handiak izanda, gaztetxeetako programatzaileak –boluntarioak, jakina– talde uholde ase ezinarekin erabat gain eginda daudela eta egin nahi dutena aukeratzeko tarterik hartzen ez dutela. Eta hori gabe, desmotibatu eta desilusionatu egiten direla. Azken finean, lan boluntarioan egiten duzuna egiteagatik, egin izanagatik disfrutatu behar da. Baina behin baino gehiagotan antolatzen duzun hori zuzen pentsatzen egin behar duzu, eta ez beste inorengan. •

Gitarra eskuan, errealtateari buruz hausnartzera eta ondo pasatzera gonbidatzen gaituen kubatar trobadorea dugu Ray Fernandez (Habana, 1971). Karibeko uhartearen erdialdean kokatutako Villa Clara aldekoa sortzez, Habanako Alamar auzoan koxkortu zen Fernandez. Sukaldaria ikasbidez, Alamarren bertan eta Habanako malekoi ezagunean trebatu zen abeslari moduan.

Trobadoretzat du bere burua Fernandezek, eta bere poesian batzen ditu kantagintza kubatar zahar eta berria, oinaze, poz zein ezbeharrei umorez kantatuz. Abeslari eta poeta aldi berean, uhartetik kanpoko soinugintza guztiaren irenslea dugu. Egunerokoan pasatzen denaz abesten du Fernandezek, kronika soziopolitikoa umorez eta berehalakotasunez azalduz, haren aparteko ahotsaz lagundurik. Kaleko hizkeraz baina erreferentzia kultuekin, inguruaz mintzo da bere abestietan: eskasia ekonomikoaz, errealtate sozialaz, bortxa politikoaz, jendearen eguneroko zailtasunez... Haren abestiak entzunez, Kuban zer pasatzen den hango eta hemengo telebista ikusiz baino gehiago ikas daiteke, beraz.

Kubako euskaldunen lagun, Habanan bizi diren euskaldunek haren adiskidetasun eta musikaz gozatzeko zortea dute aspalditik. Habanako Aberri Egunetan parte hartu ohi du, eta Ruper Ordorikarekin ere jo izan du, besteak beste. Habanaraino joateko aukerarik ez dutenek, baina, Ray Fernandez Euskal Herrian ikusteko eta haren musikaz gozatzeko aukera dute orain, lehen aldiz Euskal Herrian kontzertu bira eskaintzen ari baita, Tres Tanquistas y un Perro taldearekin. Miguel Alejandro Valdes baxu jotzailea, Roylan Carballosa perkusionista eta Lorenzo Molina tronpetaria lagun, bihar Bilboko Kafe Antzokian izango da, eta Andoain, Ondarroa eta Iruñetik ere igaroko da datozen egunotan, berriro Kubara itzuli aurretik.



«Nire aitona guajiro musika kubatarraren jarraitzailea izan da betidanik, eta horrek asko eragin dit. Nire amaren eragina ere handia izan da, batez ere musika espainiarrari dagokionean»


«Kantu bat idazten hasten naizen bakoitzean, kutsu ironiko eta zinikoa ematen saiatzen naiz beti, gaia edozein dela ere: maitasuna, politika... Umorea inoiz ez dut baztertzen»

Gogoan duzu gitarra bat esku artean hartu zenuen aurreneko aldia? Noiz eta non izan zen?

Sei edo zazpi urte izango nituen, baina primeran gogoratzen dut momentua. Goiz jaiki nintzen egun horretan, eta etxean guztiak lo zeuden. Gure etxean bazegoen kuriositate handia pizten zidan leku bat, eta hori nire aitonaren txokoa zen. Bertako besaulkiaren gainean eserita pasatzen zituen orduak aitonak, tabakoa erre eta erre. Goiz horretan, besaulkira igo eta horman eskegita zegoen aitonaren gitarra zaharra hartu nuen, *La Negrita*. Erabat magikoa irudi zitzaidan gitarra esku artean izan nuen momentua, gitarraren sokak ukitzea

bera. Bat-batean, baina, sukaldetik aitona agertu zen; goxogoxo eskuetatik gitarra kendu zidan eta berriro ere bere lekuan eskegi zuen, «errespetatu ezagutzen ez duzuna» esanaz. Hurrengo egunean bertan, gitarra berri bat agertu zen etxean, merkea, itsusia eta doinu eska-sekoa, baina gogorra zirudiena. Nire lehendabiziko gitarra zen. *Lola* izena jarri nion, ez galdetu zergatik.

Sukaldaritza ikasketak egin zenuen, baina duela urte batzuetatik melodiak eta kantuak kozinatzen dituzu. Zer da musikak ematen dizuna eta beste alor batzuetan aurkitu ez duzuna?



Sukaldaritza asko gustatzen zait, bai, baina baita pintura edo marrazketa ere; modu terapeutikoa lantzen ditudan afizioak dira. Lasaitzeko eta erlaxatzeko marrazten dut normalean, eta, sukaldean sartzen naizenetan ere, lagun arteko bazkariren bat prestatzeko izaten da normalean. Arte guztien artean abstraktuena da niretzat musika; oso eroso sentitzen naiz musika lantzen, sortzeko askatasun gehiagorekin. Garai batean, «La Jiribilla» aldizkarian sukaldaritzari buruzko zutabetxoa idazten nuen. Ez dut uste arrakasta gehiegi izan nuenik, eta esker-rak! Nire sormen kulinarioekin dagoeneko atxilotuko ninduketen kutsatze masiboa leporatuta... Musikarekin, momentuz, ez dut uste hainbesteko kalterik eragiten dudanik. Edo agian bai?

Nondik edaten du zure musika? Ze eragin ditu?

Nire musikan eragin handia izan dute, alde batetik, etxekoek, batez ere amak eta aitonak, gitarra oparitu zidanak. Nire aitona guajiro musika kubatarraren jarraitzailea izan da betidanik, eta nik uste horrek asko eragin didala. Nire amaren eragina ere handia izan da, batez ere musika espainiarrari dagokionean: Formula 5, Los Diablos, Juan y Junior... Talde horiek sekulako arrakasta izan zuten Kuban, eta horren eraginpean hazi nintzen ni neu ere etxean. Gero, helduagoa nintzelarik, musika kubatarraren abaniko itzelean sartuz joan nintzen: trobalari kubatarrak, son eta boleroak, changüi-a, caringa... denetarik. Eta noski, baita rocka, bluesa eta musika brasildarra ere. Melomano sutsua naiz, eta musika ezberdinak maite ditut, baina nire musikan eragin handiena izan duena Kubako trova tradizionala izan da.

Kritikoa zara Kubako egoerarekin; zure kantuetan ez da salaketa eta kritika sozialik falta. Hala ere, Kuban bizitzea erabaki duzu. Bizitza-apustua, sorterriarekiko maitasuna edo burugogorkeria, zein da hautu horren arrazoia?

«Kuba bihotzean dakarkizuet, eta Euskal Herriaren zatitxo bat bertara eraman nahi dut»

Nik ez dut uste hain kritikoa naizenik; ez nuke esango nire kantuekin hainbeste salatzen dudanik. Are gehiago, batzuetan iruditzen zait gai gatazkatsuei buruz abesten dudanean ez dudala esan beharreko guztia esaten. Nire kantuak saiakera edo tesi bihurtzeko beldurra izango da ziurrenik horren arrazoia. Kantu bat idazten hasten naizen bakoitzean, kutsu ironiko eta zikinikoa ematen saiatzen naiz beti, gaia edozein delarik ere: maitasuna, politika... Eskatologiko eta pesimista xamarra izateko joera daukat, baina umorea inoiz ez dut baztertzen. Oso bromazalea naiz, uste dut ondo dagoela guztiekin eta guztiari buruz txantxak egitea. Gainera, ez naiz idatziz eta abestu dudana ezertaz damutzen, eta inork ez dit konturik eskatu egin dudana ezerगतik. Dena den, egia da, kasuren batean, funtzionarioen bat deseroso sentitu dela nire kontzerturen batean. Egia da, baita ere, batzuk saiatu direla nire ibilbide artistikoa nolabait oztopatzen. Baina zer egin daiteke bufoi baten kontra! Eta bai, kritikak kritika, Kuba nire bizitza-apustua da, maitasun adierazpen bat ere bai; horrez gain, arrazoi ezberdinen batuketa eta burugogorke-ria ere izango da ziurrenik erabakiaren atzean. Baina, batez ere, harro egoteko dudana arrazoi nagusia da Kuba.

Aukerarik izan duzu inoiz Kubatik kanpo jotzeko?

Bai. Kubatik atera nintzen lehen aldian Galizian izan nintzen, Ourensen hain zuzen. Bertan ospatzen den Reperkusion jaialdian jotzeko aukera izan nuen, Manu Chaoren gonbidapenari esker. Primeran pasatu nuen: musika bikaina, jende bikaina, janari ezin hobea –a zer-nolako piztiak Kantauroi itsasokoak!-. Horrez gain, Dominikar Errepublikan jotzeko aukera ere izan dut hiru aldiz, Nazioarteko Ekoturismo Jaialdian.

Zure abestien hitzak asko zaintzen dituzu, baina zuzeneko emanaldietan inprobisatzea ere gustatzen zaizu. Bateragarriak al dira hausnarketa eta

inprobisazioa? Ondo uztartzen al dira?

Hitzak zaintzen ditut, baina inprobisatzea ere gustatzen zait, bai. Ohitura hori dela-eta kritika bat baino gehiago jaso dut, ez pentsa. Askok uste du ikuskizun profesional batean inprobisazioak ere aurrez prestatuta egon behar duela, eta niretzat hori astakeria da, aurrez entseatzen dena ez baita inprobisazioa. Dena den, batek baino gehiagok egiten du hori; horrelako ikuskizunetan egon izan naiz. Eta ikustekoa da nola inprobisatzen duten batzuek, nola saltzen duten faltsukeria bat, amaieran jendearen txaloa bereganatzeko. Eta ikustekoa da gero elkarren artean nola zoriontzen diren, simulakroaren ondotik.

Aspalditik esan ohi dudana esaldi batekin erantzungo diot zuk egindako galderari: nik ez dut asko hausnartzen inprobisatzen ari naizenean, izan ere, badago dena inprobisatzen duenik ere, hausnartzen bizi delako beti. Hain justu, horixe da nire inprobisaziorik arrakastatsuenetakoa bat. Horrekin ez dut esan nahi dena ongi egiten dudanik; nik ere jaso ditut txistuak, eta merezita gainera, baina arriskuak nire gain hartzea ere gustatzen zait.

Kubako errealitateaz, eguneko poz eta tristurez mintzo zara zure abestietan. Suposatzen dut zaila izango dela egunero inguruan ikusten duzuna albo batera uztea, ezta?

Nire abesti gehienek kubatar askok bizi duten eguneko poze eta minez hitz egiten dute, gure errealitate sozial, ekonomiko eta politikoz, besteak beste. Egunerokotasun hori beti dago presente nolabait. Orain dela urte batzuk arte, nire egoera ekonomikoa nahiko larria zen. Imagina ezazu egoera: ezkontuta, bi seme-alabekin eta guraso erretiratuaren etxean bizitzen. Jantoki batean lan egiten nuen, soldata miserable baten truke, eta, nire emazteak, medikua bera, nire antzeko ordainsaria zuen. Beraz, diru estra apur bat lortzeko, Habanako malekoira joaten nintzen, gitarra lepoan hartuta, eta turistek kantu mitikoak jotzen nizekien: “Lagrimas negras”, “Hasta siempre, comandante”, “Guantanamo”... Noizbehinka nire abestiren bat ere jotzen nuen, protesta kanturen bat normalean.

Zortea aldeko izan nuen. Artistak eta intelektual batzuek nire lana gustuko zuten, eta, hala, trobadoreen jaialdi batean parte hartzeko eskaintza egin zidaten. Horrelaxe heldu nintzen profesional izatera. Apurka-apurka nire egoera ekonomikoa hobetuz joan zen, kontzertu eta emanaldiak ateratzen joan zitzaizkidan, baita bidaiatxo batzuk ere. Gaur egun ez dut garai bateko estualdirik pasatzen, baina ez pentsa, bankuan ere ez daukat dirurik! Alamar auzoan bizi naiz orain ere, betiko auzoan, nire emazte eta seme-alabekin, eta garai batean nituen lagun, eza-

RAY FERNANDEZ

KUBATAR TROBADOREA

Kubatarren pozez eta minez jarduten du kantuetan, beti umorearen behatxulotik begiratzuz inguruari. Egunotan Euskal Herrian da, kasik etxean bezala.

Julene Larrañaga



gun eta zaletasunak ditut orain ere. Nire egoera pertsonala pixka bat aldatu da, hobera egin du, baina ez naiz beste mundu batean bizi, eta ez dut ahazten. Hor ditut egunero nire bizilagunak errealitatea ahanzi ez dezadan.

Bestelako gaiak ere jorratzen dituzu zure abestietan, ezta?

Gauza askoren inguruan kantatzen dut: maitasuna, maitasun-eza, ustelkeria, heriotza, homosexualitatea, heterosexualitatea, gezurra, Jainkoa, Kuba, politika, arrazakeria, Fidel, estralurtarrak... Denetarik pixka bat.

Zenbat disko grabatu dituzu orain arte?

Diskoen kontua benetan gogai-karria da. Neure kabuz lehen diskoa grabatu nuenerako banituen 40 kantu inguru eginak. Orain dela urte batzuk grabatu nuen “Paciencia” diskoa, baina laster agortu zen eta gaur egun ez da erraza inon lortzea. Orain dela bi urte, Bilboko lagun bati esker, zuzeneko kontzertu bat grabatu genuen, “El Conciertos-ki”, baina EGREM grabazio-etxearen eskuetan dago eta oraindik ez dute banatu. Momentu hone-tan nire hurrengo diskoa prestatzen ari naiz: “Al que bebe, fuma y canta se le jode la garganta”.

Kuban bizi diren euskaldun askorekin tratua duzu, eta bertara joan izan diren beste batzuekin ere behin baino gehiagotan egona zara. Orain, Euskal Herrian aurreneko aldiz egonda, zer sentitzen duzu?

Euskal Herria aspalditik laztandu dudan ametsa da. Eta noski, orain bertan egonda, herri honetaz gozatu nahi dut. Kuban euskaldun asko ezagutu ditut azken urte hauetan. Habanan ospatu zen Aberri Egun batera gonbidatu ninduten orain dela urte batzuk, eta ezinezko egin zitzaidan jende zoragarri hari ezezkoa ematea eta beraiekin bat ez egitea. Patxaran, txakolin eta Habana Club batzuen ostean, euskaldunek ere rumba dantzatzan gerria mugitzen dutela egiaztatu ahal izan nuen! Habanako Aberri Egunak oso politak izaten dira; danbor eta rumba



doinuekin eta bertsolariekin amaitzen dira beti. Hunkigarria izaten da, eta baita nostalgikoa ere. Denborarekin Euskal Herriaren eta euskaldunen handitasuna deskubritu ahal izan dut: euren baloreak, hizkuntza, historia, harrotasuna... eta ezin aipatu gabe utzi euskal gastronomia aparta! Uste dut kubatarrok eta euskaldunek gauza asko partekatzen ditugula, nahiz eta gu tropikalagoak eta beroagoak izan.

Inoiz saiatu zara euskaraz abesten? Kontzertuetan inoiz ahaleginik egin al duzu?

Momentuz, behin bakarrik saiatu naiz euskarazko abesti baten koruak kantatzen. Entsegu luze baten ondotik izan zen, Ruper Ordorika bezalako maisu baten eskutik. Kubako zenbait probintzian kontzertu eta poesia emanaldi batzuk eskaini genituen Vladimir Zamora poetak, Ruper Ordorikak eta nik neuk. “Que gran invento los amigos” deitu genuen emanaldi hura. Urteekin abestiaren letra ahaztu egin zait, baina nire kontzertu

baterako berreskuratu nuen behin. Kontzertua bukatuta, publikoan zegoen euskaldun bat gerturatu eta barrezka esan zidan: «Non ikasi duzu poloniarrez hitz egiten?». Nork daki, agian animatuko gara eta egunotan sorpresaren bat emango dugu oholtza gainean.

Euskal Herriko artista batzuk ezagutu dituzu; batzuk beterranoak, Ruper bera kasu, eta beste batzuk hasiberriak, Mikel Inunziaga esaterako. Zerk erakartzen zaitu gure musikatik eta gure artistengandik?

Egia esateko, eta euskara ulertzen ez dudanez, muga handia nabari dut, ezin ditudalako kantuak sakontasun osoz das-tatu, eta pena da. Itzulpenei esker lortu dut euskarazko kantuetara iristea. Baina noski, lehenengo patata batzuk jan, ondoren atun zati bat, gero sal-tsa apur bat, eta marmitako bat jan duzula uste izatea bezala da hori. Zerbait berdintsua gertatzen zait Vladimir Visotsky Errusiako trobadorearekin; errusiera ulertzen ez dudanez,

«Denborarekin
Euskal Herriaren eta
euskaldunen
handitasuna
deskubritu ahal
izan dut: euren
baloreak, hizkuntza,
historia,
harrotasuna... eta
ezin aipatu gabe
utzi euskal
gastronomia
aparta! Uste dut
kubatarrok eta
euskaldunek gauza
asko partekatzen
ditugula, nahiz eta
gu tropikalagoak
eta beroagoak izan»

beti geratzen naiz zatikako gozamen bat jaso izanaren sensazioarekin. Bi hizkuntzak, errusiera eta euskara, oso erakargarriak eta exotikoak iruditzen zaizkit. Musikalki, beti erakarri izan nau folklorera gerturatzen den ia guztiak. Ezagutu izan ditudan musikari euskaldun guztiak miresten ditut, baina, bat aukeratzekotan, Ruper Ordorikarekin geratuko nintzateke. Bere disko guztiak ditut etxean, eta bere abestien letra guztiak irakurri ditut.

Oraindik oholtza gainean ikusi ez zaituztenentzat, aurreratu ahal diguzu kontzertuetan zer eskainiko duzun?

Buelta asko eman dizkiot buruari, zein abesti jo eta zeintzuk ez, eta zaila egin zait erabakitzea. Kontuan izan behar da nire kantu askotan Kubari lotuta dauden kode eta hitzak daudela, eta beldur naiz hemen ez ote diren behar bezala ulertuko. Baina, bestalde, musika unibertsa da, eta baita bizipoza ere. Ni ondo pasatzera eta nire poztasuna kutsatzera nator. Kuba dakarkizuet bihotzean, eta trukean Euskal Herriaren zatitxo bat eraman nahi dut bertara. Ez nator turismoa egitera; jendeari egiten dudana eskaintzera eta gozatzera nator; jendea ezagutzera nator; euskara ezagutu eta sentitzera nator. Zinez, asko eskertzen dut izan dudan aukera.

Zer moduz joan dira orain arteko kontzertuak?

Egia esan, oso ondo. Uste baino jende gehiago gerturatzen ari da kontzertuetara, eta nik uste baino anitzagoa gainera. Jende gaztea, heldua... denetarik batu da. Pentsatzen nuen, agian, Euskal Herrian bizi diren kubatarrek etorriko zirela batez ere, edo latinoak gehiago... Baina euskaldun dezente animatu dira, eta oso harrera ona eta beroa izaten ari gara. Esan bezala, kubatar umoreak baditu bere kodeak, eta gauza batzuk azaldu beharra dago aurretik, baina uste dut jendeari gustatu zaiola ikusi duena, eta tarte atsegin bat pasatu duela gurekin. Horixe da gure helburua.



«Je suis SA»

Koldo Sagasti

Mingaina moztu nahi digute, zorrozkariaren artaziaz», zioten Soziedad Alkoholikakoek. Gasteizkoak gaur bertan jotzekoak ziren Madrilgo Vistalegre pabilioian. Kontzertua, baina, bertan behera gelditu da, Gobernuak Madrilen duen ordezkariak debekatu egin duelako. Itxuraz, haien abestien letrak «bortizkeria, arrazismoa eta xenofobia sustatzeaz gain, gizateriaren duintasunaren aurkakoak dira». Ez da lehenbiziko aldia musikari gasteiztarrek zentsuraren atzaparkada pairatzen dutena; izan ere, azken bost urteotan sei bat aldiz saiatu dira, alferrik, erresumaren hiriburuan jotzen. Auzitegi Gorenak ere epaitu du musikarien

jarduna, eta haien iritziak «zorigaiztoko gehiegikeria iraingarriak» direla ebatzi du... baina iritziak azken batean.

Txanpon horren ifrentzuan beste gasteiztar bat daukagu, Javier Maroto. Alkatea onik atera berri da haren aurka jarritako salaketa batetik. SOS Arrazakeria taldekoek SAKoei leporatzen zaizkien kargu berberak leporatu zizkioten auzapezari, alegia, «pertsonen duintasunaren aurka jo eta gorrotoa sustatzen duten adierazpenak egitea». Kasu horretan, ordea, EAEko fiskal nagusiak bestelako epaia egin du: «Maroto jaunak adierazpen askatasunaren babesean egin zituen adierazpenok, beraz, eskubide osoa dauka bere ideiak eta iritziak libreki

adierazteko». Adierazpen askatasuna kontzeptu malgu baino malguagoa bilakatu da, norberaren interesen arabera baliatzen baita. Baina batzuen eta bestearen artean aldea dago: Marotok ez ditu botatzen gogotak gaztetxe baten agertoki gainera, udalxeko eserlekutik baizik; eta alkate gisa hitz egiten duenean hiritar guztien izenean ari da, baita iraintzen dituen horien ere. Ez dut esango SAKoen ibilbide profesionala gertu-gertutik jarraitu dudarik, baina bai nire eskarmentu militantean behin baino gehiagotan topatu ditudala, herri mugimenduekin batera hamaika ekimen solidariotan. Horregatik, gaur, inoiz baino gehiago, ni ere SAKoa naiz. •

Monsieur Benotman

Joxean Agirre

Garai bateko lapurrek beste maila bat zuten, beste kategoria bat, ematen zuten kolpe bakoitzeko jendea ahozabalik uzten baitzuten eta filmak egin eta eleberriak idazten baitziren haien balentria gogoratzeko. Goi mailako lapurrez ari naiz, mundua mundu denetik beti egon baitira lardatsak eta txapuzeroak. Goi mailako lapur horien ekin tzak ikusita, badirudi Thomas Quinceyren jarraitzaileak zirela, hark bere “Hilketa, arte ederretako bat gehiago gisa” liburuan ondo egindako krimenen edertasuna goraiatu baitzuen.

Oraingo goi mailako lapurrak, ordea, CAN auziko protagonistak, Barcnas, Rodrigo Rato, Hiriko edo Bidegiko gureagoak, errazkeriaren maisuak dira, hor ez dago ez

arte ederrik ez ezer, diru gosea baizik. Horien balentriak ikusita apenas egingo den film txukunik, ezta eleberri gogoangarri ere. Badirudi Augusto Monterrosoren “Las ilusiones perdidas” ipuinean inspiratu direla, De Quinceyrena ondo egindako krimenaren goratzarrea den bezala, Monterrosorenak hilketa txapuzeroaren antologia baitirudi.

Otsailaren 20an hil da Parisen Abdel Hated Benotman (epaileentzako Monsieur Benotman), lapurra eta idazlea, banketxeetan jo zituen kolpeengatik bezain ezaguna baitzen espetxean idatzi zituen nobelengatik. Orain 54 urte jaio zen Frantziako hiriburuan aljeriar jatorriko familia batean, eta umeak poliziak eta lapurrak jolasera jokatzen hasteko adinean hasi zen saltoki handietan lapurtzen, eta jolas horretan eman du bizitza. Azken kolpea 2006an jo zuen Neuillyko Barclay's banketxearen kontra eta 18.000 euro eraman zituen. Guztira

hamazazpi urte eman zituen espetxean eta horiek bere autore kutunak, Nietzsche, Txekhov eta Dostoievski, irakurtzeko baliatu zituen, eta antzerkia eta nobela idazteko, gehienetan bere bizitzan oinarrituta.

Orain bospasei urte espetxean ezagututako emakume batekin (Francine) jarri zen bizitzen eta poliziarekin jolas egiten aspertuta edo, jatetxe bat ireki zuen hiriaren erdigunean. Izena ere egokia jarri zion: Restaurant Diet Ethique. Bera zen, emaztearekin batean, hango nagusia, langilea eta animatzailea. Baina gaixotu egin zen eta itxi egin behar izan zuten. Lapurretekin ez du dirurik egin. Bere irakurleek kontu korrante bat ireki dute haren aldeko hiletan gastuak ordaintzeko eta emazteari beste jatetxe bat (Chez Francine) irekitzen lagunduko diote. Parisera joatekotan bazarete, eta, Fauburg Saint-Antoine kaletik igarotzen bazarete, egin iezaiozue bisita. •



Sortzez italiarra da Grossi, Arcekoa, baina 1992az geroztik Bilbon bizi da. Umorez esaten duenez, «bilbotar bat edozein lekutan jaio daiteke». Sylvain SENCRISTO

infraganti

FAUSTO GROSSI

Badira lanpostuarekin identifikatu ezin diren pertsonak, beren ogibidetik at hamaika gauza desberdin egiteko gai direnak, horietako bakoitzarekin izaera arruntari distira ezarriz, nolabait, anonimotasuna atzean utzita besteren ahotan ibiltzeko. Horietako bat da gure gaurko pertsonaia, jakintza-alor anitzeko artista, poeta, litografoa, bitxigilea, diseinatzaile grafikoa, performer, eta baita sukaldaria ere, azken garaiotan su arteko lanei esker telebistan ere ezagun egin baita Fausto Grossi.

Irribarre handi batekin eman zaigu ezagutzera Donibane Lohizunen; irribarrea, nor eta nolakoa den errateko baliatzen duen lehen arma, bestea hitza baita, entzule bat atzeman orduko, tertulian gus-tura aritzen den pertsona delako italiarra. Grossi 1954an sortu zen Arcen, Frosinoneko probin-

tzian, Erromatik hegoalderantz dagoen sei mila biztanleko nekazarien herrixka batean. «Italian sortua naiz, bai, baina nik ez nekien italiarrez hitz egiten, hau da, arcesiarra zen nire ahotik ateratzen zen hizkuntza», eta segidan galdegin diogu lengoaia horren berri; «arcesiarra ez da italiarra ez den beste hizkuntza bat, baina, era berean, beste hiz-

kuntza bat da; ulertu duzu, ezta? halere, idatz ezazu 'tx' erabilita, hobe ulertuko baitu irakurleak» ('ce' hori 'txe' ahoskatzen dela azpimarratzen digu behin eta berriro, eta ongi ahoskatu dugun arte eduki gaitu hitza errepikatzen; tematia den seinale). «Erromara joatean italiar hizkuntza ikasi behar izan nuen, unibertsitatera joan nintzen ha-

ra, bai, maite buena ikastera, baina ikasi beharreko beste zerbait banuela ohartu nintzen segidan, ongi idazten adibidez; entzutera eman gabe hitz asko jan egiten nituen, desberdin ahoskatu bestela, nolabait euskararekin konparatuko nuke, urteotan hala ikasi dut, hau da, adibidez, ez da berdin Ondarroako hizkera eta euskara batua. Bai da baina ez da. Eta gauza bera gertatzen da italiar hizkuntzarekin eta arcesiarrekin».

Urte anitz daramatza Euskal Herrian Faustok, Bilbon bizi baita bere emaztearekin goeko hamarkadaz geroztik, eta han du bere lantokia gainera. «1992a izango zen emaztea eta biok Euskal Herrira etorri ginen urtea, Bilbora. Badakizu bilbotar bat edozein lekutan jaio daitekeela, ezta? Gero, noizbait, bere jatorrira itzuli behar du, erroetara, sorterrira, etxera; halako zerbait izan zen nire kasua», irri karkaila egiten du esaldi hau aipatzearekin batera, eta bere portaeraren azalpenarekin lotzen da. «Umorea ezinbestekoa da niretzat, umorea iraultzailea da, umore kritikoak beste ezerk bai-

no gehiago hurbiltzen gaitu gertaera orotara, errealitatea taxuz neurtzeko baliagarri da, zuzena da, zehatza, arazoak agertzeko balio du, eta hein batean arazo horiek konpontzeko ere bai». Lisboan aurpegi zuri eta sudur gorriko pailazoz jantzi, eta «Ni pailazo bat naiz» pegatina oparitzen ibili zela kontatu digu jarraian; «paparrean jantzen zuen pertsonak denbora tartetxo bat behar zuen kritikaz ohartzeko, pentsarazi egiten zien seinale», gogoratu du, eta, Grossik, «kritikara bezainbat terapiara» bideratu nahi izan zuen ideia.

Euskal lurretara etortzearen arrazoiak motibo serioekin lotu da jarraian: «Euskal arte garaikideak deituta etorri nintzen, garaian ezagutzen nuen euskal artisten lana, Oteiza, Chillida... Horiek famatuak ziren, baina niri artea orokorrean gustatzen zitzaidan, eta interesatzen zitzaidan hemen egiten zen lana, arte garaikidea, puskatzailea; jendea ezagutu nahi nuen bestalde, eta ikasten jarraitu; azkenik, herritik ateratzeko aitzakia ere bazen, norabait joateko motiboa, eta hemen nago geroztik, jadanik euskaldun egin naiz maila batean». Eskultore ezagunak aparte utzita euskal artisten artean gustukorik baduen galdegin diogu orduan, «niri Txerra gustatzen zait asko, nabarmentzekotan bera hautatuko nuke, Jose Ramon Morquillas» aitortu digu, eta artista plastiko, margolari eta poeta hau zergatik maite duen azaltzera lotu da: «Arauk hausten ditu, beti urrunago begiratzen du, eta proposamen ausartak dira bereak. Oroitzen dut polemika sortu zuen bere erakusketa bat: langabe bat kontratatatu zuen, hilabeterako, eta aulki batean eserita egotea zen bere eginbeharra, besterik ez. Horrela, Morquillasek, langabearekin gizarteari agertu zion gizarteak berak sortutakoa. Oraitsu, Bilboko Arte Ederren Museoa agertzeko erakusketa bat prestatzen ari zen eta bertan behera utzi diote, pentsa noraino den transgresorea».

Faustok arte ederrak ikasi zituen Erromako Unibertsitatean, eskultura arloan espezializatu

zen, eta hiru hilabeterako Erasmus beka bat eman zioten kanpoan ikasten jarraitzeko. Aukera on bat zen bere desirentzat, eta ez zuen alferrik galdu nahi izan: «Laguntza ekonomiko txiki bat zen, ez askoz gehiago. Ni baino txikiagoa zen gela batean egiten nuen lo Leioan, baina Italiatik ateratzeko aukera eman zidan laguntzak, ikasketak amaitu berri nituen, toki ezezagun batera etorri nintzen, eta, hara!, Leioan egon nintzen hiru hilabete horiek nire bizitzako produktiboenak izan ziren, artearekin lotutako gauzarik gehienak orduan egin nituen-eta. Oroitzen dut, adibidez, Gasteizko ur biltegi zaharrean antolatutako erakusketak kolektiboa, Beatriz Silvak *‘oferta única’* leloarekin antolatutakoa, eta han zeuden nirekin batera Asier Perez artista plastikoa, Ramon Churrua, David Santiago, Merche Periz pintorea... Abangoardistak, arte garaikideko sortzaileak ziren guztiak, eta toki hura ez zegoen orain bezain eder, hau da, oker ez banago, han egindako lehen erakusketa izan zen hura, baita nirea ere, eta oroitzen dut Alberto *Safi* lagunarekin gau bat ere pasa nuela han, lotan». Alberto Urkizaz ari da Grossi, alor antzeko artista eta ekintzaileaz: «Kartoiekin egindako erakusketak bat aurkeztu zuen Albertok: arku bat estali zuen haiekin, eta kartoia azpian nahiz gainean jarrita lo egin genezakeela proposatu zuen, horrek isolatuko gintuelako hezetasunetik eta hotzetik. Baina... goizaldeko hiruretan hotzez dardarka ari ginen biok!».

BILBON «PASTA Y PIZZA GROSSI»

Europako toki askotan egin ditu erakusketak Grossik, baita performanceak ere, eta ez dio ezezik ematen proposamen ausartei, bide berriak urratzeko balio dutenei; «tamalez, ez dut denbora askorik ordea, nire bizitza denda da, nire emaztearekin batera aurrera eramaten dudana denda, eta eguneroko lan horri eskaintzen diot denborarik gehiena egun». Bilboko Manuel Allende kalean dagoen “Pasta y pizza Grossi” da Faustok aipa-

tzen duen denda, emaztearekin orain dela 22 urte ireki zuena, non Mediterraneo itsasoaren lurretako produktu asko dastatu eta erosi ahal diren. «Etxean egindako pasta da gurea, ez du irin industrialaren zaporerik, gariarena eta baserriko oiloen arrautzena baino ez du. Enkarguz lasagna ere prestatzen dugu, eta salgai jartzen duguna freskoa da; egunero egiten dugu pasta berria, ze, konparazio batera, haragia eta berdurak freskoak erosten baldin badituzu, zergatik ez duzu erosten pasta egin berria?», saltzaile sena ere baduela erakusten du Grossik. Halere, denda ez da denda klasiko bat: «Irekitzeko asmoa genuenean ere bagenekien jada erosleku hutsa baino gehiago izango zela, besteetatik desberdinduko zen zeozer. Ni arte munduarekin lotuta egonik eta erakustoki falta dagoela jakinik, argi neukan sortzaileek beren obrak agertu eta saltzeko parada eskainiko genuela gurean; hori nahi genuen behintzat, eta hartan saiatzen gara, ‘Spazio Grossi’ da gure denda».

Han ezagutu zuen Jokin Etcheverria, “Secret Chef” saioarekin telebistara eramane duen sortzaile lapurtarra: «Aspaldi ezagutu nuen Jokin, Donibane Lohizuneko izanda Bilbon lan egiten zuen, dendatik pasatzen zen, eta ‘Burp’ izeneko telebista programa bat zeukan. Tarteka, zerbait egiten nuen berarekin, zela agerraldi bat, edota performance berezi bat; elkar ezagutzeak konfiantza eman zidan bere proposamena onartzeko».

Grossik aipatzen duen proposamen hori “Secret Chef” saioa zen, hau da, bere habitat natura-

Bilboko Manuel Allende kalean dagoen «Pasta y pizza Grossi» denda orain dela 22 urte ireki zuen emaztearekin. Denda berezia da, arte erakustokia ere badelako

«Arteak ez du behar baimenik, ezta agintaririk ere; artea eskuzabaltasuna da, askatasuna, eta askatasuna hauskorra da, beraz, ongi babestu behar den zerbait da»

letik ateratako norbait beste kokagune batera eraman eta hantzuz ezezaguna zaion jende, ohitura eta gastronomiarekin elkarbizitzen jartzeko ideia originala. 2013an Innova Basque Audiovisual saria irabazi zuen Etcheverriak proposamen horrekin; “Homeland” telesail ezezaguna ekoitzi zuen Amos Neumann eta The Wit aholkularitza suitzar prestigiotsuko Geise Fisicina epaimahaikideen artean izanik, sariak bezainbesteko garrantzia du hura nork eman zuen jakiteak.

HISTORIAKO LEHEN «SECRET CHEF»-A

«Nire ustez, ‘Secret Chef’ ez da gastronomiari buruzko emankizun bat, orain telebista guztietan modan dauden saio horietako bat gehiago. Eredu berri bat da; harremanak, kultura eta geografia elkarlotzen dituen ideia bat. Ez zaio sukaldaritzari garrantzia ematen, eta, ematen zaionean, herri ttipi bateko bizimoldeari adinakoa ematen zaio; bertako herritarrei eskaintzen zaie arreta, hori dena kanpoko begiek nola ikusten duten erakutsiz». Grossik, egindako lanaren defentsa egiten du laburpen modura, «‘Secret Chef’ bizitza bera da, errealtatea eta fikzioa elkartzen diren puntua». Ez du oihartzun handiegirik izan emankizunak, halere, edo ez zaio eman nahi izan, saria irabazteagatik hitz emandako lau saioak baino ez baitira emititu. Eredu berriak jorratuko ditu halere programak orain, beste herrialdeetara saltzen ari baitira eta dagoeneko banatzailen interesa piztu baitu. Hori bai, «ni naiz historiako lehen *secret chef*-a seguru bainago beste batzuk izango direla, Euskal Herritik urrun gainera, baina denek oroituko dute ni izan nintzela lehena».

Irri festak jarraitzen du Grosiren ahoan. «Lehen programa Karrantzan grabatu genuen, eta festa izan zen: asto karrera antolatu zuten herrian, herriko koroak guretzat kantatu zuen, alkateordeak jaso gintuen... Pozgarria da protagonista sentitzea, baina pozgarriagoa herri txiki bati eta bertako jendeari

protagonismoa eskaintzea. Antzekoa gertatu zen Zornotzan, Zugarramurdi eta Orion ere; bertan, gainera, Benito Lertxundi kantaria azaldu zen etxean ikasitako arrain zopa egiten, zopakaren sekretuak azaltzen... Mojek lehen programan ere eman zizkidaten beste sekretu batzuk. Hala, guztiz ezezagunak zitzaizkidan euskal jakiak egiten jardun naiz, *pizzaiolo* bat euskal platerak prestatzen, hori zen nire patua!».

Jakintsua, jantzia eta gertuko da Grossi, «begietara begira eta maitasuna jarrita» hitz egitea bezala gauzak sortzea maite duena, hizketaldi bakarrean gai anitz jorra ditzakeena, izan artea, izan sukaldaritzak edo izan politika. «Krisi garaioak ilunak dira, beltzak, distirarik gabeak; balioen galera ere bada krisia. Indibidualismoarekin nahasten dugu gizabanakoaren garrantzia, morala etikarekin, tolerantzia axolagabekeriarekin, informazioa komunikazioarekin... Informazioaren gindosiak asperrtu egiten gaitu, baina, batez ere, baztertu egiten gaitu, bideetik kendu; hau da, indargabetu egiten gaitu gindosi horrek eta informazioa sortzeko tresnak kentzen dizkigu, ez dago beritasunik inon, edo, okerreana dena, beritasunen beharrik ez dugu ikusten. Eta zer esanik ez erritmoak, egunerokoak, bizimoduak, betiereko oraina bizitzera derrigortzen gaituen horrek; historiari erreparatzeko denborarik gabe bizi gara, jende akritikoa nahi du gizarteak, globalizatua, kolore bera daukana». Mezu itxaropentsu batekin bukatzen du hitzaldia halere: «Parean daukagu artea, sorkuntza; ez da museoko gauza bat, galerietan agertzekoa, leku estatikoetan, ez. Arteak ez du behar baimenik, ezta agintaririk ere; sortzaileak ikuslearengan eragiten duen modu berean eragiten du ikusleak sortzailearengan, interakzio bat dago; artea eskuzabaltasuna da, askatasuna, eta askatasuna hauskorra da, beraz, ongi babestu behar den zerbait da». •

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen artean arreta erakarri duten gaietako batzuk:

> Soinekoa

Joan den astean ilusio optiko bat eragiten zuen soineko baten inguruan aritu ginen. Urdina eta beltza ala zuria eta urrekara zen soinekoa? Sarean ibili den soineko famatua orain indarkeria matxistaren aurkako kanpaina batean erabili dute. «Zergatik da hain zaila beltza eta urdina ikustea?» galdetzen du iragarkiak, gorputza ubelduraz beteta daukan emakume bat soineko zuri eta urrekara jantzita agertzen den argazkiaren ondoan. «Ilusio optiko bakarra bere aukera izan dela pentsatzea da. Sei emakumetik bat erasoen biktima da. Gelditu emakumeen aurkako erasoak». Horixe kanpainaren muina.

> Txina

Txinatarrek beste errekor bat jarri dute: 57 solairuko etxe orratz bat eraiki dute hemeretzi egunetan! Solairu bakoitzak 10 metroko altuera du, eta, eraikinak, guztira, 180.000 metro karratu ditu –800 apartamendu eta 4.000 langilerentzako bulegoak tartean–. Modulu sistema baten bidez eraiki dute, hormigoierabileramurriztuz –15.000 hormigoierabileramurriztuz ziren hala egin ezean–. Hormigoierabileramurriztuz ez dutenez, hautsik ere ez dute zabaltu airean, eta hori abantaila handia da kutsadura maila izugarriak dituen Txinan. Eraikitzaileen esanetan, eraikuntza barruko airearen %99,9 erabat garbia da.

> Sam Simon

Sam Simon, “Los Simpson” telesailaren sortzaileetako bat, zendu da 59 urterekin, gaixotasun baten ondorioz. Telesail famatuaren gidoilaria, zuzendaria eta ekoizlea izan zen Simon. Telesailaren hasierako urteetan aritu zen bertan, eta bere estiloan eta nortasunean parte handia duela esaten dute. Emmy saria bederatzi aldiz irabazi zuen. 2014an, heriotza eragingo zion gaixotasun bat zuela jakin zuenean, bere diru guztia animalien aldeko Save The Children eta Feeding Families gobernuz kanpoko erakundeei eman zien (urtean 10 milioi dolarretan hazten den 100 milioi dolar inguruko ondarea zuen).

> Radarra

Gijonen, Estatu espainolean, gertatu zen joan den otsailaren erdialdean. Kamioi batek istripua izan eta radar baten kontra talka egin zuen. Kolpea latza izan zen, kamioiak kalte handiak jasan zituen, eta baita radarrak berak ere. Hori ikusita, istripua izan zuen gidaria radarra zegoen tokira gerturatu zen gauez, bere tokitik atera zuen eta etxera eraman zuen. Ondoren, piezatan banatu eta txatarrak gisa saldu zuen. Antza ateratako diruarekin ordaindu zuen isuna. Txatartegiz txatartegi ibili ondoren topatu du Poliziak lapurra. Eta orain isun bat baino gehiago ditu zintzilik. Justizia poetikoa?



GUREGIPUZKOA.NET

ELKARTZEKO, EGOTEKO, HIZKETAN EGITEKO

Elizakoak eginda bueltatzen ziren etxera. Bakarrik batzuk, taldean besteak. Irriz batzuk, pentsakorrago besteak. Zanbranan (Araba) ateratakoa da argazkia, 1956. urtean. Giza kiaren hitzordu sozial garrantzitsua izan da meza, elkartzeko eta egoteko aitzakia. Geroztik, jende askok elizatik kanpo topatu ditu elkartzeko aitzakiak, eta berdin igandetan edo astegunetan. ©CC-B-ND: Indalecio OJANGUREN. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA

Olatz Arbelaiz Gallego
Informatikaria



Munduko konputagailurik azkarrenak: txutxu-mutxuak

Teknologia ziztu bizian doa aurrera eta horrek berebiziko eragina du eguneroko bizitzan gure inguruan ditugun gailu elektronikoe-tan, baina baita gutariko gehienoi urrun geratzen zaizkigun superkonputagailuetan ere. Testuinguru horretan 1993an argitaratu zen lehenengoz munduko 500 konputagailu azkarrenen zerrenda, Top500 deritzona (www.top500.org), eta orduz geroztik urtean bitan (ekainean eta azaroan) argitaratzen da. Ez da erraza makinaren portaera (abiadura) konparatzea, arkitektura eta baliabideak batetik, eta exekutatzen dituzten aplikazioak bestetik, oso desberdinak direlako. Hala ere, fabrikatzaile guztiak “ados” jarri ziren LINPACK proba-bankua (ekuazio linealen sistema trinko handiak) exekutatzen lortutako abiadura erabiltzean konputagailuak sailkatzeko. Proba-bankuko programak exekutatuz makina erraldoi horiek segundo batean exekutatzeke gai diren koma higikorreko eragiketa kopurua (*Floating Point Operations per second* edo FLOP/S) neurtzen da. Bada urte batzuk makina azkarrenen 1 petaFLOP/s-ko abiadura gainditu zutela. Hau da, makina horiek gai dira segundo batean koma higikorreko 1.015 eragiketa baino gehiago exekutatzeke. Ideia bat egite aldera, gai izango bagina horietako eragiketa bat exekutatzeke segundoko, 31 milioi urte baino gehiago beharko genituzke makina horiek segundo batean egiten dutena egiteko.

Azken zerrenda 2014ko azaroan argitaratu zen, eta, buruan, azken lau argitalpenetan bezala, Tianhe-2 ageri zen, Txinako Defentsa Teknologiarako Unibertsitate Nazionalean garatutako makina, jada 33,86 petaFLOP/s-ko abiadura lortu duena. Horretarako, Linux familiako sistema eragilea erabiltzen duten 16.000 konputazio nodotan banatutako 3.120.000 nukleo ditu. Hartzen duen azalera, aldiz, 720 metro koadrokoa da. Zoritxarrez, sistemok kontsumitzen duten energia ez da hutsaren hurrena, 17,6 megawatt Tianhe-2 superkonputagailuaren kasuan, urtebete zehar 10.000 etxetik gora elektrizitatez hornitzeko adina energia, hain zuzen ere.


Zerrenda osoari erreparatzen badiogu, gainerako aberastasunak bezala, makina hauek ez dira munduan zehar uniformeki banatzen. Zerrendan ageri diren makinaren artean bat bera ere ez dago Afrikan; %48,2 Ameriketako Estatu Batuetan, %26 Asian, %24 Europan eta %1,8 Ozeanian. Sistema gehien dituen herrialdea AEBak diren arren, 231rekin, kopuru hori behera doa azkenaldian eta Europan dauden sistema kopurua, aldiz, pixkanaka gora. Gugandik gertuen da goen sistema, Bartzelonako Superkonputazio zentroko Mare Nostrum makina, zerrendako 57. posizioan dago.

Erabiltzen dituzten sistema eragileei dagokienez, joera ez dator bat gure etxeetan gertatzen denarekin. 500 makina azkarrenen artean bakarra dago Windows sistema eragilea erabiltzen duena, %97k Linux familiako sistema eragilea erabiltzen dute eta gainerakoek Unix familiakoa. Saltzaileei dagokienez, sistema gehienak HPrenak dira (%35,6) eta jarraian IBM (%30,4) eta Cray (%12,3) daude. Metatzen duten eraginkortasuna neurtzen badugu, aldiz, ordena aldatu

egiten da: lehena IBM da eta HP hirugarrena. Arkitektura kluster motakoa dute gehienek (%85,8), hau da, helburu orokorreko hainbat konputagailu dira, sare-teknologietatik eratorritako sareen bidez konektatuta.

Zaila da gaur egun makina hauek zertarako erabiltzen diren jakitea. 2011ko azaroan, 500 makina horien artean %13k erabilpena zehaztu gabea zuten, eta, gainerakoek artean, lan esparru garantzitsuenak zerbitzu logistikoak, defentsa, energia, aeroespazioa, geofisika, eguraldia eta klimaren ikerketa eta finantza ziren besteak beste. 2014ko azaroan, aldiz, makinaren %86k du erabilpena zehaztu gabea. Zertan ari ote dira?

Noraino jarraituko du honek? Egongo al da mugarik konputazio abiaduran? Argiaren abiadurak, erabil daitekeen material kopuruak eta transistore batek egoera batetik bestera aldatzeko behar duen denborak beti jarriko dute muga. Hain zuzen ere, azken urteetan garapenaren parte handiena prozesagailuak gehituzetik etorri da, ez horietako bakoitzak azkarrago egitetik. •



Tianhe-2, uneotako superkonputagailurik azkarrena.

GAUR8

arkitektura / hezkuntza / teknologia

3 BEGIRADA:



GAUR8 ireki gure leihoa

